

uk

239. zenbakia / 2013ko urriaren 9a



ARGIZKIZKIAK

Argazkietan oinarritutako TESTU LABURREN II. LEHIAKETA

Erakusketa Berangon

Urriaren 1etik 15era Berangoeta kultur etxean

www.renault.es / 902 333 500

RENAULT CAPTUR HARRAPATU BIZITZA

Renault Captur gama: kontsumo mistoa (l/100 km) 3,7tik 5,4raino. CO2 isuria (g/km) 96tik 125eraino.

DRIVE THE CHANGE

BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL 94 448 39 00. DEUSTU · www.bilboberri.com

LEIOA BERRI AUTO IPARRAGIRRE HIRIBIDEA, 94. TEL 94 480 42 90. LEIOA · www.renault.es/concesion/leioaberri

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte
HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga
ERREDAKZIOA: Zuberora Iturburu, Julien Nafarrate, Nerea Gujarrubia, Irantzu Sagaminaga
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Armando Llamas, K. Olate, Amaia Arriaga, Aritz Bergara, Ixone Vega, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lekoan Euskara Elkarte
MARRAZKILARIA: Laurita Siles
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / **INPRIMATEGIA:** GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

TRATU TXARRREN BIKTIMAK ARTAZTEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111

Bizkaiko Foru Aklundia Diputazio Foral de Bizkaia Kultura Saila Departamento de Cultura

Non zer

4. PLAZA.
5. IRUDIA. Plentziako eskabeteria ohia.
6. FACEGUK. Getxo Europako Kirol-Hiria izendapenari zer deritzozu?
7. LEHEN ETA ORAIN. Arrigunagako hondartza.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Karmele Kamiruaga.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Gortizko Mountain-bike txapelketa.
28. ARGAZKIA. Algortako geltoki zaharra.
30. BERBETAN. Mireia Gabilondo.
34. FOTOGRAFIA. Ane Basagoiti.
40. SAKONEAN. Uribe Kostako txakolin-uzta.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Emakumezko zuzendarien zikloa Perseo zineforumean.
43. MUSIKA. Gairen kontzertua Sopelan.
44. LIBURUAK. Bertso-paper lehiaketa.
45. KIROLAK. Kirolean ere euskaraz, Sopelan.
46. ELKARRIZKETA. Iزارo Gonzalez leregi.
47. JENTILKOKA. Mikolasen olerkia.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Boteko txapiroak.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Barrikako nagusien etxean bazkari-jai, 1964.
54. AITORMENAK. Oihane Mateos.

Azala: Ane Basagoiti

www.ukaldizkaria.biz



30 Mireia Gabilondo

Berbetan

Aurkeztu barri duen *Amaren eskuak* filmaz, zinemaz, aktore eta zuzendari izateaz berba egin digu bergararak



11 Karmele Kamiruaga



46 Iزارo Gonzalez

aldizkaria etxean jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....
 Kalea/zenb..... Herria.....
 e-mail.....
 Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro
 beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)
 □□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa, 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37

Leihatila

> Arrate Illaro

Espainoldu

Tematuta dabilta, nahitaez espainoldu behar dugula-eta.

Erandion, Udaleko Kultura-sailekoak lan galanta egiten ari dira herritarrek espainoltzeko bide horretan, bakarrak ez diren arren.

Bestela ulertezina litzateke programatzen dutenaren %90 erdaraz izatea: antzerkia, zinema...

Garze-Bulegoa ere fin dabil: ikasturte berrirako hogeita hamar bat ikastaro eskaini ditu, eta hiru/lau besterik ez euskaraz.

Horretarako ez du Espainoltze-Planik onartu behar Plenoak. Berez-berez dator.

Plenoak, hori bai, onartua dauka Euskara Biziberritzeko Plana, argi eta garbi jasota dauka 16 urtetik beherako neska-mutilei zuzendutako ekimen guztiak euskaraz egingo dituela, gainerakoentzat ere euskarazko eskaintza nagusituko dela...

Bai zera! Euskara-Zerbitzuak antolatuak bai, horiek euskaraz, baina hortik aurrera ezer gutxi.

Zertarako eskaini euskaldunoi ezer euskaraz, erdaraz ere jakin badakigu?

Euskaldunoi mespretxua erakusten digute, eta guk normalizat hartu.

Iritzia

Hileon abiatuko dituzten 35/02 sumarioko eta gazte independentisten aurkako epaiketen inguruko iritzia igorri digute Uribe Kostako auzipetuek:

Kartzela mehatxuari, LIBRE! erantzun

Garai berrietara zabalik gaude. Askatasun gero eta zabalagoa, horixe da denbora hauetan behar duguna. Kartzela, atzerria, atxiloketak, torturak, biktimak... Atzean utzi behar ditugun kontuak dira, askatasuna abiatuz. Euskal Herria badabil. Herritarrok nahi badugu, Euskal Herria badoa.

«Gure esku dago! Bide librea egin Uribe Kostan, Euskal Herrian!»

Baina gure erabakia ezinbestekoa da. Katalunian egiten duten moduan egin behar dugu hemen ere. Bidea askatasunari. Bidea Euskal Herriari. Kartzelak hustu, etxeko atek zabaldu, kaleak bete.

Bidea trabatu nahi digute betikoe. Betiko moduan: atxilo, jipoi, debeku, zigor. Audiencia Nacional. Gazte eta nagusi, denak isildu nahi. Denak kateatu. Madrilen lehenengo, urrunago gero.

Oraingoan nola: bi makro-prozesu, urrian bertan, 14an hasita gazteona, 17an hasita 35/02, duela 11 urte fabrikatu zutena. Hilabete luzeak Audiencia Nacionalean. 612 urteko kartzela-zigorrek eskatzen dituzte orotara. Milioikada euro kendu. Baina batez ere herritarrengandik urrundu, isilarazi, bide librea tra-

batu. Kartzelak betetzen segi, euskal preso politikoen zerrenda luzatu. Horixe da Estatu espainiar honek eskaintzen digun etorkizun-programa. Eskaintza bakarra izatea nahi dute gainera.

Oso oker dabilta horretan. Gure esku dagoelako. Euskal herritarrek aktibatzea. Elkartu, konprometitu. Etorkizun librea zabaldu. LIBRE! Egunak antolatuz. Elkartasun-sareak, herriz herri eta Euskal Herri osoan. Laguntza solidarioa indartu, laguntza ekonomikoa eskaini, askatasunerako kontu korranteak eta kutxak. Garzonen, epaileen, fiskalen, polizien gezurrei aurre egin eta buelta eman, hemen eta munduan, Argentinan eta urrunago.

Irabazteko sortu ginen eta libre izateko, ez kartzela espainiarrak betetzeko. Han daudenak hona ekarri. Kolore guztietako euskal herritarrek batu askatasunaren helburuaren atzetik, guk hemen eskubideen bermea antolatu ahal izateko, Estatu espainiarrak beti ukatu diguna eta sekula eskainiko ez diguna.

LIBRE! sarea indartzen ari gara. Hor denak kabitzen gara, guztiok dugu lekua. Gune konpartitua da: libre.epaiketarikez.org

Uribe-Kostan geu gara auzipetuak oraingoan, baina mehatxua askoz zabalago eta astunagoa da. Euskal Herri osoko 76 auzipetu zuzen bi prozesuotan; 110 kultur elkarte eta auzo-bilgune nahastu eta konfiskatu nahi dituzte; are okerragoa, eskubide zibil eta politikoen muina den adierazpen askatasuna, alternatiba libreak eskaintzeko askatasuna, alderdi eta erakunde politiko libreak izateko askatasuna trabatu eta zapuztu nahi dituzte.

LIBRE! da erantzun egokia. Elkartasunetik konpromisora bidea egitea. Zutitu eta libre mintzatu, bide librea egin Uribe Kostan eta Euskal Herri osoan.

Maite Amezaga, Jose Luis Franco eta Xabier de la Maza

(Uribe Kostako auziperatuak)

gu geu**Barriak eta zaharrak barri!**

Barriak barri eta zaharrak barri... Beste behin halako danak oraingo UK-n ere bai!

Hasteko, aurreko zenbakian aurrerapentxo bat eskaini bagenizuen ere, dagoeneko ezagutzera emon genezake urteotan UK-ko marrazkilari izan den Dogan Gozelen eskutik lekukoa hartu eta aurrerantzean aldizkariko marrazkigilea nor izango den: Laurita Siles! Ondo etorri!

Bestalde, ez ahaztu Erandion egon ostean, Berangon ikusgai dagoela hilaren 15era arte ArgiHizkiak lehiaketako testu-argazki erakusketa; ikusi, irakurri eta gozatu!

Amaitzeko, han-hemengo iritzia, barriak, adierazpenak, egitarauak eta abarrak jasotzen ditu, ohi dan legez, UK honek... Eta honetan ez daudenak, hurrengoan ziurrenik! Ordura arte!

UK-ko lan-taldea



Eskabetxeria SOS / Plentziako portuko eskabetxeria ohiaren eraikina botatzekotan dabilta; laster egingo ei dute. Elkarte eta norbako batzuek Eskabetxeria SOS herri-konseilua osatu dute, eraikina "Plentziakoa ez ezik gure kostalde osoko issas historiaren azken lekukoetariko bat" dela eta duen "balio simbolikoagatik, interes arkitektoniko eta pisu historikoagatik", "marinel izaren ikono, gure hiriarren identitatearen ikurra" dela iritzia; eta arxikimenduak biltzen dabilta (facebook eta twitter kontuak ere badituzte). Eraikina ez botatzeko eta bizitza barria eman diezaioten eskaria aurkeztu zuten irailako udalbatzan (nahiz eta erabakitze-ahalmena Kostaldeko Zuzendaritza Nagusiarena izan); Independentteek kontrako bozka eman zuten, EAJ abstenitu egin zen eta Bilduk alde bozkatu zuen... ○ / Argazkia: Asier Mentsaka

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugul!

Getxo Europako Kirolaren Hiria izendatu dute; zer iruditzen zaizu?



Leioa

Iban Ortuzar Tellaetxea

> irakaslea

Europatik datozen ekimenetan inbertitu behar da. Herriko jende gutxi praktikatzeko dituen kirol batzuk ezagutzera emango dira. Horregatik beharrezkoa iruditzen zait. Baina nire galdera ondorengoa da: nahiz eta Getxo izan izendatutako hiria, beste leku batzuetako jendea joan gaitezke ekimenetara?



Urduliz

Ibon Muruaga Amondarain

> irakaslea

Ez dakit izendapen honek zer ekarriko dion hiriri, baina gaur egungo egoerarekin, dirua beste gauza batzuetan gastatu beharko litzatekeela uste dut. Irakasle bezala, irakaskuntzan edo euskarara bultzatzeko ekintzetan adibidez, beharrezkoagoak direlako nire ustez.



Algorta

Ainara Sanchez Lartategi

> zerbitzaria

Ez dut uste ondorio txarrik ekarriko duenik; agian dirua gastatu beharko dute, baina gero berreskura daiteke erakarriko duen turismoarekin. Gainera hiriaren izena ezagunago egingo du. Nire iritziz dena onurak izango dira.



Algorta

Rozio Luces Goñi

> etxeoandrea / ama

“Miniolimpiaden” antzekoa izango bada ez nago ados planteamendu horrekin, baina kirolak sustatzeko balioko badu ondo iruditzen zait. Izan ere, egingo dituzten ekimenetarako egiturak bertan geldituko dira geroko eta hori kontu honen alderik onena izango dela iruditzen zait.



Berango

Andone Zelaia Mier

> irakaslea

Ekimenak euskaraz egiten badira ondo iruditzen zait, oraindik lan piloa gertatzen delako euskarari bultzada emateko. Gainera kirola oso garrantzitsua dela uste dut. Beraz, kirola bai, Getxon bai, baina euskaraz; gaur egun ez delako egiten.



Sopela

Jon Cuñado Landa

> irakaslea

Kirola egitea oso positiboa da. Baina Getxoko Udalak antolatutako kirol-ekimenak beti apur bat elitista izan dira eta normalean oso lehiakorrak. Ongi etorriak 2014ra, Getxo Europako Kirolaren Hiria izatera, baina ikuspegi herrikoia izatea gura nuke.



GETXOKO UDAL LEIURUTEGIA



ASIERMENDIAGA

Iraganez doa denbora* beti / ARRIGUNAGA

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > surf-eskola



Atxabiribil, 2013ko iraila

Testua: **Arkaitz Gomez** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Haizea dator ifarraldetik

Urtetan zehar harkaitzen kontra itsasoaren indarra higatuz doa hondartza sortu egingo duen hondarra. Haizeak sendo bultzatuko du uhin arroen gangarra, mihi txuriez harearekin nahastu arte aparra. Naturarekin bat egiteko daukagulako beharra prozesioan hondartzaraino surflari olatutzarra. Urtero legez udarekin berpiztu da surf-sukarra, olatu on bat gobernatzea da sendabide bakarra.

Traganarruak sortu egin du ur-korronte zirimola, parafinadun ohola artean bainularia dagola, gillatik pasa behar badute le(he)ngo piratek behinola kortxeroren bat izanez gero ez zaio inori axola. Surflariei bihurtzen zaie kresala haien odola, amets olatu bukaezina (e)ta maitale surf ohola. Irakasteko beti prest dago argazkiko surf-eskola hori bai! sartzen baldin bazaizu neoprenozko eskola.

Olatu zurdak zamalkatzea uhin-zaldunen desira oreka galduz surflariren bat bere zelatik jauzi da. Nahiz tsunamirik ez da somatzen handia da ikusmira, bezatu ezin da itsasoa, berari zor zaio mira. Noiz agertuko bere parean uhin handien segida goiko hirurak poliki doaz lasai itsaso erdira, arraunean (e)ta pikoan diren itsaslamiei begira ezjakinean pozik dabilta marrazo janari dira.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

aek
Euskara praktikoa
URIBE KOSTAKO AEK
94 430 47 34
lauaxeta@ek.org

- Euskalduntze ikastaroak
- HABEren mailak egiaztatze azterketa ofizialak
- 4. Maila
- Mintzataldeak

Gorena ikasteko
pour se comprendre



Taldekideek aukeratzen dute non eta noiz lotu

uribe kostan > berbalagun taldeak

Uribe Kostako Berbalagun ekimena martxan ipini da barriro ere. Aurtengoa zarpigarren ikasturtea da eta dagoeneko 9 talde batzen dira euskaraz berba egiteko, 50 berba-kide inguru. Euskaraz jarduteaz gainera, jende barria ezagutzeko eta euskaraz bizitzeko aukera izango dute partaideek. Euskaraz hitz egiten duen edozeinek parte har dezake, euskaldun zaharrak eta barriak alkartzuz sortuko diren

taldeetan. Euskararen harreman-sareak gehiago zabaltzeko asmoz, berbalagun danak batuko dituzten hainbat ekintza ere prestatuko dituzte: ikastaroak, txangoak, hitzaldiak e.a. Talde jarraipena, ekintza antolaketa eta zalantzak argitzeko arduradun baten laguntza edukiko dute. Izena emoteko aukera hauek daude: ○

Info+: 688 849 810
UKberbalagun@gmail.com

telebista saioa > marimaistraren kontsultorioa

Eguenero zabalduko du Marimaistrak kontsultorioa, besteak beste, Goienak emittitutako Magazinarean barruan. Gauerdiko kontsultorioen eskaintzen antzera, euskal pitonisa zoro honek euskaldun zabarron galderei erantzungo die tokiko teletzetan edo internet bidez (*Youtube*-ko kanala "Marimaistra" izenekoa da) ikusi ahalko diren saio laburretan: atal bakoitzak 3-4 minutuko iraupena du. Bitar-

te horretan, jasotako zalantzak erantzungo ditu umore klabean Marimaistra sarginak, barre egin eta ondo pasatzearen helburu nagusiagaz beti ere. Parte hartu gura duen orok Marimaistrari galderak igortzeko hainbat bide erabil ditzake: helbide elektronikora, *whatsApp*-era edo *twitter*-era mezu-galdera bidaliz. ○

Harremanetarako: galdetu@marimaistra.com
668 889 192



Sarean eguen gauetan ikus daiteke

berbatxangoa > urriaren 13an, talaiaz talaia

Aitxu!, Berbots eta Egizuk antolatzen dituzten berbatxangoen egitaraua abiatzear dago barriro ere, udako oporren ostean. Lehenengo hitzordua urriaren 13rako ipini dute; eta autobusa Erandiotik urtengo da (Alzagako ontziralekua) 09:00etan, Algortako geltokia izango da hurrengo gurelekua 09:15 aldera, eta handik Sopolako eliza alboan hartuko dituzte azken berbalagunak, 09:30ean gutxi gorabehera.

Oraingo txangoan Uribe Kostako talaiaz ezagutzeko ibilbidea egingo dute zitara agertzen direnek, eta Xabier Alberdi Lonbidek emongo ditu gure eskualdeko talaiaz gaineko azalpenak. Hala, berbatxangoan izena emoteko bideak betikoak dira: aipatutako euskara elkarteetan helbide elektronikoa eta telefono zenbakien bidez. ○

Harremanetarako: aitxuzuba@gmail.com
berbots@gmail.com / egizugetxo@gmail.com



Galeako Fortea izango da talaiaetako bat

saiazgetaria



HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa



...harria

...lehengo garaiak...

...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143



GETXON AKADEMIAK ETA ZENTROAK ERE EUSKARAZ



Ikasturte honetan, ume, gazte zein heldu getxoztarrek baduzue herrian bertan hainbat ekintza euskaraz egin ahal izateko aukera: aholkularitza psikopedagogikoa, eskola-laguntza, musika, dantza, eskulanak, pintura-tailerrak, euskara ikastaroak, etab. Jarduera horiek guztiak euskaraz eskaintzen dituzten akademien eta zentroyen zerrenda daukazu hemen; informazio zehatzagoa jasotzeko, sar zaitetz www.getxo.net/euskara helbidean.

Aholkularitza psikopedagogikoa: Abant psikopedagogia eta eskola-orientazioa, Ausarti akademia, Centro de terapia sistemática Lourdes Azcaray, Centro FID, Centro Psicológico Gran Vía, Hire Ondoan zentru psikopedagogikoa, Nagore Etxebarri psikologoa eta logopeda, Centro Psicológico Zubikoa

Eskola-laguntza: Aula 10, Avances, Bidean, Cima Didaktika, Colectivo Romo, Edison, Elipse, Ernesto, Ikaslaguntza, Landeta, Salsidu

Euskara-eskolak: Bai&By, Behal, Concord, International Don't, Shamrock academy, Treland

Musika-eskolak: Andres Isasi, MS Music School, Riff, Soinu, Vivaldi

Pintura, eskulanak eta dantza eskolak: Arteskola, Dantzarte, RDA Capoeira, Zirri-marra arte tailerra

Umeentzako euskaltegiak: Algortako Uztarri, Areetako Uztarri, Getxoko Uztarri



“Bilboko Aste Nagusian bederatzi egun egon izan naiz jarraian taloak egiten, egunero 50 kilo irin oretuz”

Karmele Kamiruaga > talorik goxo eta ospetsuenak!

Ohikoa da gurean, erromeria edo jai-egunetan, talo-postuak topatzea han eta hemen. Ez da horren erraza, oster, talo goxo-goxo eta krask egiten dutenak topatzea. Baina badira taloak egiten profesionalak direnak. Leioa, Astrabudua eta Erandio inguruan, barbarako, Karmele Kamiruagaren taloak ospetsu egin dira, apaltasunez onartuko ez duen arren. Izan ere, astrabuduarra txiki-txikitatik dago taloari lotuta: “Juanene baserrian bizi ginen, eta bertan artoa eraiten genuen, etxean zuritu, txigortu eta inguruko errota batean irintzen genuen”. Baserrian, beraz, ohikoa zuten taloa jatea: “Domeka goizetan sakratua zen, aita etxean zegoelako. Ortura joan baino lehen taloa jaten genuen, sardina zaharrakaz”. Sardina zaharrakaz? “Bai, lehen ohikoa zen. Txapa gainean jarri, azala kendu, tiratxoak egin eta olio gordina botatzen genion gainetik”. Egun, Karmele hamaika jardueratan dabil talo-egile: kanpomartxo, herrietako jaiak... “Bilboko jaietan bederatzi egun egon izan naiz jarraian taloak egiten, egunero 50 kilo irin oretuz”. Baina talo-postu asko dagoen arren, Karmelerenak bereziak dira: “Ez dut sekreturik. Artirina bakarrik erabiltzen dut, irin zuriagaz nahastu barik. Eta pazientzia dut: eginda ez badago, ez dut ateratzen, bezeroak gose-aurpegi itzela izan arren!”. Probatu gura badituzu, azken barikuetan Leioako Kurkudi tabernan! Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Julen Nafarrate**

Oihala igotzera doa

31. Getxoko **Antzerki-Jardunaldiak** izango dira **urriaren 12tik 20ra**; **umeentzako** zein **nagusientzako lanak eskainiko** dituzte, **euskaraz** eta **gaztelaniaz**, **aretoan zein kalean**

Antzerki-Jardunaldiak izango dira, beste behin ere, Getxon. Oraingoan zortzi lan antzeztuko dituzte urriaren 12tik 20ra bitartean, horietako sei euskaraz, erdia kalean eta beste erdia Areetako musika-eskolan. Danentzako lanak daude, baina arreta berezia ipini diete umei, beraiantzako eskaintza zabala dagoelako. Gainera, kaleko emanaldi guztiak doakoak izango dira.

Oihala igo edo plazara atera, areto barruan eta kalean izango dira Getxoko Antzerki-Jardunaldiak hilaren 12, 13, 19 eta 20an; aurten 31. edizioa dugu. Antzerkien erdia Algortako San Nikolas plazan izango dira eta beste erdia Areetako Andres Isasi musika-eskolan. Zortzi lanetatik bost haurrei zuzenduta daude, bi helduei eta, azkena, adin guztietako ikusleei; antzerkietako sei euskaraz dira. Udalak dioenez, *“ikuskizun egitarau anitza osatu da, umei arreta berezia emonda antzerki-zaletasuna bultzatu guran”*.

Helduentzako eskaintza osatzen dute *Terapias* (Vaiven Produkzioak) eta *Emaztegaiaren semea* (Ados Teatro) obrek, eta biak antzeztuko dituzte musika-eskolan: lehena urriaren 12an antzeztuko dute eta *“psikoanalisisa, maitasuna eta sexuaren inguruko muntaia dibertigarria da”*; bigarrena, barriz, hilaren 19an emongo dute eta *“erabateko krisian bizi den gizon baten istorioa”* kontakten du eta *“umore sentsu ikaragarria azaltzen du elkarriketa dramatikoetan ezkutatuta”*. Biak hasiko dira 20:00etan



Emaztegaiaren semea antzeztuko du Ados Teatrotik urriaren 19an, Andres Isasi musika-eskolan

eta sarrera ordaindu behar da aurrez 8 euro eta egunean bertan 10 euro.

Helduentzat, baina umeentzat ere bada beste obra bat: *Vive soñando*, Trapu Zaharra konpainiarena. Algortako San Nikolas plazan egingo da saio hori hilaren

“Umei arreta berezia emonda antzerki-zaletasuna bultzatu gura dugu”

19an, zapatuan, 13:00etan eta doan (kaleko gainontzeko emanaldiak legez).

Esan bezala, umei zuzenduta daude antzerki gehienak, bost hain zuzen ere, baina eurak laguntzera doazen guraso eta gainontzekoek ere gozatuko dute emanaldiak, ziur. Obra bi izan ezik beste danak

izango dira kalean, eta bostak euskaraz.

Alde batetik, musika-eskolan eskainiko dituzten lanak ondokoak dira: *Katilkadak*, Kontakatilu taldearena; eta *Bueltak*, Behibi's konpainiarena. Lehena urriaren 20an izango da eta bigarrena 19an, biak 18:00etan. Lanotarako sarrerek 4 euro balio dute.

Esan bezala, umeentzako gainontzeko hiru antzerkiak kalean izango dira, Algortako San Nikolas plazan, 13:00etatik aurrera eta doan. Ondokoak dira: urriaren 12an *Hankapalu*, Kalika Teatro taldearena; 13an *Tsarlestrup*, Zirika Zirkus konpainiarena; eta 20an *Txangoa*, Potxin eta Patxin taldearena. Sarrera guztiak eros daitezke Andres Isasi musika-eskolan, aurrez edo emanaldiaren egunean. ○

Info+: www.getxo.net

Aquariuma zabaldu dute eta Ereagan Turismo-Bulego barria



Turismo-Bulego barria, Ereaga hondartzan

Egun berean inauguratu zituzten Getxoko Aquariuma eta Turismo-Bulego barria, irailaren 27an. Aquariuma ez da barria, baina urtarrilean sute batek kaltetutako instalazioak konpondu ostean zabaldu dute barriri, bertan *“erakusten diren itsasoko ekosistema eta biotopoz gozatzen jarrai dezaten”* herritarrek.

Kirol Portuan dago Getxoko Aquariuma eta alde bi dauzka, 300 espezie baino gehiagoz: bata atlantiar ekosistemako espezieak, Bizkaiko Golkokoak barne; bestea espezie tropikalena. *“Itsas biotopo askotarikoak daude alga eta arrainez beteriko hogeitak aneletan; anemonak, krustazeoak eta inguruko espezieak zein tropikal-exotikoak”*. Iaz 18.165 lagun baino gehiagok bisitatu zituzten.

Bestalde, aipatu legez, irailaren 27an

Turismo-Bulego barria ere inauguratu zuten Udalak Ereaga hondartzan, ekainetik zabalik dagoen arren. Eraikinak 180 metro koadro dauzka eta garrantzia *“berezia”* emon diote harrera-lekuari: *“Leku zabala, eroso eta argia da, itsasora zabaldutakoa beirate handien bitartez”*. Udalak 500.000 euro inbertitu du proiektu honetan.

“Turistei eta bisitariei arreta hobea eta pertsonalizatuagoa emoteko, teknologia barrien aldeko apustua” azpimarratu du Ignacio Uriarte Turismo-zinegotziak. Azaldu duenez, *“kanpoko ukipen erakusleho bat dauka, informazioa 24 orduz emoten duena; terminal elkarrenergilea, informatzaileen laguntzagaz edo era pertsonalean erabili ahalko dena; eta wi-fi gunea”*. Helburu dute *“Iturbask Turismo Bulegoen Euskal Sarean parte hartzea”*. ○

GURASOENTZAKO TAILERRAK HASI DIRA

Gurasoen Eskolako tailerrak abiatu ditu Udalak; Getxoko eskoletako Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako umeen gurasoentzat dira, doakoak. Urtarrilera bitartean garatuko dira, ondoko gaiak landuko dituzte: erabakiak hartzea, seme-alabak gaztatzeko konpontzea, prestatzea nerabezaro-aurre eta nerabezaroko gazteakaz bizitzeko, auto-estimua hobetzea, gurasoentzako psikologia eta eskola-porrota prebenitzea. Parte hartzeko ez da izena emon behar alde aurretik, baina informazio gehiago daukazu www.getxo.net gunean; telefono honetara ere deitzea daukazu: 944 660 151.

UTOPIAN ESKOLAN IZENA EMON DAITEKE

Ikasturte barria abiatu du Getxoko Antzerki-Eskolak, Utopian proiektu eta lokal barriagaz. Hortaz, izena emon daiteke Irakaskuntzako Institutu Librean (goizetan, doan), irakasleentzako formaziorako ikastaroetan (eguenetan, 40 euro) eta eskola sortzailean (astean egun bat, 40 euro; egun bi, 55 euro; eta hiru egun, 70 euro). Horiei buruz argibide gehiago behar izanez gero Utopian eskolaren egoitzara hurbil zaitezke (Errotatzu poligonoa, 6).

Info+: www.utopiangetxo.com

GETXOBIZI APLIKAZIOA SAKELAKO TELEFONOAN

Bizikleta publikoen mailegurako sakelako telefonoetarako aplikazioa sortu du Udalak: GetxoBizi dauka izena. Doakoa da, Emaus Moviilad Sosteneblek eta Zix Studiok garatu dute. Aplikazioaren bitartez, Erabiltzaileek denbora errealean ezagut dezakete bizikleta publikoen edo aparkalekuen eskuragarritasuna. Gainera, nabigatzaile baten bidez, bizikletarako gomendatutako ibilbideetara, bidegorrietara eta hainbat zerbitzutara heltzeko aukera eskainiko du. Aplikazioa deskargatu gura baduzu sarbidea da:

getxo.net/es/servicios/comunicacion/app.
Info+: www.getxo.net



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
• BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
DERRIGORREZKO BIGARRIN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86



Ines Bermejo Larrañaga > artista eta arte-komisarioa

“Erakusketaren ideia da artearen bitartez zelan aurre egin krisi egoerari”



Romotarra Guggenheim museoko erakusketa baterako komisario aritu da

Arte Ederretan lizentziaduna da Ines Bermejo Larrañaga romotarra. Lotu barik dabil Austria, Italia eta Euskal Herriaren artean, bere lanak erakutsiz edota komisario moduan erakusketak antolatzen. Horien artean inauguratuko du urriaren 8an *Que se pare el mundo, que yo me bajo: cancela una epoca, inaugura otra* erakusketa, non eta Bilboko Guggenheim museoan. Zazpi euskal artista gazteren lanak aukeratu ditu Bermejok, hainbat diziplinakoak: Elisa Arteta, Pau Figueres, Miriam Isasi, Ibai Leon, Mawatres, Ainhoa Ortells eta Diego Vivanco.

—Zelan suertatu zaizu aukera erakusketa bat antolatzeko Guggenheimen?

—Museotik etorri zen proposamena. Bederatzi komisario gazte aukeratu eta proiektu bat aurkezteko eskatu zieten: ibilbide ona zeukatenak, baina oraindino oso ezagunak ez zirenak, hasiberriak edo. Duela zazpi bat urte nabil arte, musika edota antzerki jaialdiak antolatzen eta niri ere eskatu zidaten proiektu bat aurkezteko. Bederatzi proiektuetatik hiru aukeratu zituzten museoan erakusteko, nirea tarterko; poz handia hartu nuen. Erakusketa

urriaren 8tik azaroaren 3ra izango da museo 103-B galerian: museotik ateratzeko berau zeharkatu behar da, beraz, museora doazen pertsona guztiek ikusiko dute erakusketa.

—Eta zer gai aukeratu duzu?

—Azken aldian hemenik kanpo ibiltzen naiz eta, itzultzean, beti sumatzen dut sentipen negatiboa krisia dela-eta. Nik ere pairatzen dut krisia eta egoera txarra da, baina erakusketa ikuspuntu begirada ironiko, komiko eta pentsakor batetik landu dut gaia, hau da: artearen bitartez

zelan aurre egin krisi egoera horri. Anarella Martinez valenziarragaz egin nuen prozesua, bera izan dut aholkulari, beti elkarregaz lan egiten dugu-eta.

—Hainbat diziplina dituzu erakusketan, zer dela-eta?

«Euskal Herriko artisten lanak eta euskal artea erakutsi gura dut»

—Gustuko dut nahastea, ez izatea bakarrik pintura, edo eskultura, edo bideoa; baizik eta diziplina asko batera jartzea, eta zazpi euskal artistaren lanak aukeratu ditut. Ideia arriskutsua zen, baina erakutsiko dugu bideoa, eskultura, instalazio bat ere badago, Ainhoa Ortells getxoztarrak mural erraldoia egingo du, performance bat egingo du Elisa Artetak inaugurazioan... diziplina desberdinetatik begirada barriak aurkeztuko ditugu.

—Zergatik artista horiek?

—Euren lana oso interesgarria delako. Gainera, batzuk unibertsitatean ezagutu ditut eta eurakaz ere lan egin izan dut hainbatetan. Egia esan, denbora oso gitxi izan dut aukeratzeko eta, beraz, lan konkretuak dira aukeratu ditudanak, hau da: landuko nuen gaiari hobeto doitzen zitzaizkion artelanak. Proposamena luzatu nien eta baietz esan zuten. Zoramen apur bat izaten ari da, bakarrik egiten dudana lehen komisario lana da-eta; Anarellaren laguntzagaz, noski, baina orain bakarrik egiten ari naiz. Baina oso pozik nago, aukera oso-oso handia da-eta. Artistengatik ere oso pozik nago, parte hartuko ez balute ezinezkoa litzatekeelako erakusketa gauzatzea. Niretzako oso garrantzitsua zen ere Euskal Herriko artisten lanak eta euskal artea erakustea. ○

Info+: www.guggenheim-bilbao.es

Getxoarte saltokietan

Euskal artisten lanak erakutsiko dituzte herriko saltokiek urri osoan



Orain arte Areetako Geltokia plazako karpan egin da Getxoarte

Urriaren 1etik 31ra 47 euskal artistaren lanak dituzte Getxoko saltokiek, Getxoarte ekimenaren barruan. Orain arte Areetako Geltokia plazako karpan egiten zen jaialdia, baina aurrerantzean merkataritza eta ostalaritza lokaletan garatuko da, bi urtean behin. Horrela, artea herritarrengana hurbildu gura dute antolatzaileek: “*arte erakustokietatik kalera aterako da, ingurune hurbilagoa*”.

Udalaren Getxo Aktibatu programaren barruan kokatu dute Getxoarte eta hainbat arte-diziplinako lanak ikusi ahaliko dituzte getxoztarrek: grabatua, eskultura, margoa, ilustrazioa, arte digitala

edota marrazkiak. Algortako azokako aretoan ere erakutsiko dituzte hainbat lan: asteleheneetik barikura 08:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, eta zapatuetan goizez bakarrik.

Lanak sakonago ezagutzeko, barriz, bisita gidatuetan parte har dezakezu: urriaren 17an 18:30ean hasiko dira bisitak, Romo-Areetan gaztelaniaz eta Algortan euskaraz; eta hilaren 19an 12:00etan, Romo-Areetan euskaraz eta Algortan gaztelaniaz. Izena emoteko 944 914 080 telefonora deitu edo lmartin@getxo.net helbidera mezua bidali behar duzu. ○

Info+: www.getxo.net/eu/getxoarte

36 AKADEMIATAN IKAS DAITEKE EUSKARAZ

Irakasgairien edo gairien bat euskaraz eskaintzen duten Getxoko akademien zerrenda kaleratu du Udalak, eta 2 eta 16 urte bitarteko umeen 6.500 etxeetara bidali du informazioa; aurtun 36 akademiak osatzen dute zerrenda, iaz baino 11 gehiagok. Eskaintza ez da umeentzat eta gazteentzat bakarrik, musika, artea, dantza eta abar egiteko aukera ere eskaintzen dutelako aipatu akademiek. GEHI euskara sustatzeko hitzarmenaren barruan kokatzen da ekimena eta liburuxka elektronikoa ere argitaratu dute; ondoko helbidean kontsulta daiteke: www.getxo.net/eu/euskara.

PELLO GUERRAREN HITZALDIA VILLAMONTEN

La resistencia ante la conquista de Navarra (Erresistentzia Nafarroako konkistaren aurrean) gaiari buruz jardungo du Pello Guerrak urriaren 16an, Algortako Villamonte kultur etxean, 19:00etan. Bolivartiar Ikaskuntza Elkarteak antolatuta du, urteko hitzaldi-zikloaren barruan; hilero egiten dute hitzaldia Villamonten.

Info+: bolivar.org

ORGANIK TALDEAREN IBILBIDEA IRUDITAN

Getxoko Organik dantza-taldeak 10 urte bete du eta argazki-erakusketa batez ospatuko du: Natalia Monge taldeko zuzendariak eta Jose Mari Martinez *Bubu* argazkilariak osatu dute; Algortako Torrene aretoan ikus daiteke urriaren 31ra arte. Ezohiko dantza eta antzerki taldea da Organik, mugimendua erabiltzen du komunikaziorako eta musika sortzen dute obra bakoitzerako: mugimendu fisikoa da oinarria, indartsua eta emozioz betea, askotan hitzakaz eta umoreagaz uztartuta. Organikek helburu bi dauka: batetik, dantza garaikidearen joerak ikertu, baita antzerkiagaz eta musikagaz zelan uztartu ere; bestetik, aretoetatik atera, eta kalera zein bestelako guneeetara hurbildu.

Info+: www.organikdantza.com

lagusana
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Ibon Idoiaga Basaras > Kultur Leioako liburuzaina

“Hilabetean behin elkartuko gara hemerrotekan euskarazko liburuei buruz solasaldia egiteko”

Irakurzaileok zorioneko zaudete, euskarazko irakurketa kluba abiatu dute eta Kultur Leioan. Hilean behin elkartuko dira euskarazko liburuei buruz aritzeko eta, hil honetan, Ferdinand von Schirach *Krimenak* liburuari buruz jardungo dute. Kluba dinamizatzen dabil Ibon Idoiaga Basaras kultur etxeko liburuzaina.

—Kluba abiatu duzue, baina ez da ideia barria, ezta?

—2007an hasi ginen antzeko egitasmo batez, baina euskarazko talderik ezin izan genuen sortu ez zelako apuntatu nahikoa jende. Horren ordez, interneten zabaldutako foroak, baina hura ere amaitu zen; aurten liburutegitik bertatik animatuko gara antolatzaera. Horrelako klubak egiten direnean hiru osagai izaten ditu: liburuak, irakurleak eta gidaria. Azken horretan apur bat herren lotuko da gurea, profesionalik ez dugulako ekarriko, baina bestalde, malgutasun handiagoa dago irakurleek aukera ditzaten liburuak.

—Horrenbestez, zelan antolatuko zarete?

—Hil bakoitzeko hirugarren eguaztenean elkartuko gara hemerrotekan, 19:30ean, aurretik adostutako liburu bati buruz solasaldia egiteko. Baina, askotan, liburuak



Info+: www.litforoa.com eta kulturleioaliburutegia.blogspot.com/2011/06

aitzakia izan leike eta pizten den interesaren arabera, egileari edo beste gai bati buruz hitz egin dezakegu. Gainera, neu bertako liburuzain izanda, abantaila daukagu; hau da: hurrengo hilean helduko diren liburuen barri aurretik daukat eta hilabeteko bileran bertan esan dezaket zeintzuei buruz aritu gaitzkeen hurrengo saioan. Izan ere, liburutegiak berak utziko dizkie liburuak parte-hartzaileei eta, horrela, hil osoa izango dute irakurtzeko.

—Euskarazko liburuei buruz bakarrik jardungo duzue saioetan?

—Hori da, asmoa euskarazko irakurketa sustatzea da-eta; beno, eta irakurketa orokorrean. Liburu danak euskaraz izango dira, izan leikez euskaraz sortuak edo itzulpenak: urriaren 16rako *Krimenak* hautatu dugu. Lehen bileran dozena erdi bat lagun batu ginen eta oso gustura egon ginen. Beraz, irakurzaileak anima daitezela, lagunartean egongo gara-eta. ○

Kultur Leioako udagoiarena

Abendura bitartean hainbat diziplinatako 21 ikuskizun ikusi ahalko da



Munduari itzulua antzetzuko du Gorakada taldeak urriaren 20an

Kultur Leioan 21 ikuskizun eta 23 emanaldi eskainiko dituzte oraindik eta urte akabura arte, besteak beste: musika, dantza, zinema, antzerkia edota erakusketak.

Antzerkiaren alorrean, ondokoak ikusi ahalko dira: *Munduari itzulua* (Gorakada), *Hamlet* (Artedrama, Dejabu eta Le Petit Theatre de Pain), *Maridos y Mujeres* (La Abadia Teatro) eta *Tempestad* (Barco Pirata eta PTC). Gainera, Gabonetan Antzerkiera ziklo bereziaren barruan umeentzako lau obra programatu dituzte.

Musikari dagokionez, Auditoriumeko oholtzara igoko dira: Zoozabar, Carmen Paris, Nancy Vieira eta Quinteto Lisboa. Gainera, Bluesnights ekimenagaz jarraituko dute aurten ere Ambigu gunean:

Travellin`Brothers leioztarrakaz batera arituko dira Nico Wayne Toussaint edota Marco Marchi & the Mojo Workers.

Dantza-ikuskizunak ere egongo dira Kultur Leioan: *Limits* (Manuel Rodriguez), *Cube* (Kulbik konpainia) eta *Miniatura + Before we fall* (Roser Lopez Espinosa). Era berean, Haurtxoentzako VI. Arte Eszenikoen Zikloaren barruan ikusi ahalko dira azaroan *Que si que no* (Drammatico Vegetale-Ravenna) eta *Kulunka* (Teatro Paradiso).

Azkenik, hainbat erakusketa ipiniko dituzte, horien artean ArgIHizkiak: azaro hasieran Hemerrotekan. Kultur Leioako eskaintza osoa bere webgunean: ○

Info+: www.kulturleioa.com

TORRESOLOKO BOE-ETARAKO IZEN-EMOTEA

Torresolo gunean egingo diren Babes Ofizialeko Etxebizitzen hirugarren promozioan parte hartzeko izena emon daiteke azaroaren 15era arte. Jaureguizar enpresak 108 etxebizitza eraikiko du bertan eta gune horretako azken BOE promozioa izango da. Etxebiden inskribatuta egon arren, izena emoteko dokumentazioa aurkeztu behar da Leioako Udaleren Erregistro Orokorrean (Elexalde 1). Promozioari, baldintzei eta aurkeztu beharreko dokumentazioari buruzko informazioa daukazu www.jaurevisa.com gunean eta ondoko telefono zenbakietan:

Info+: 944 701 078 / 638 651 977

ARGAZKI ETA FILM LABURRAK AURKEZTEKO AZKEN EGUNAK

Oraindino badaukazu aukera Kultur Leioako film laburren eta argazkien lehiaketara aurkezteko: argazkiak urriaren 11 baino lehen aurkeztu behar dira eta film laburrak urriaren 18a baino lehen. Film laburrak zuzeneko grabazioak edo animazio-lanak izan daitezke, gaia edozein dela, euskaraz edo gaztelaniaz, gehienez 15 minutukoak. Argazkiak, barriz, zuri-beltzak, kolorekoak eta telefonoagaz egindakoak izan daitezke; gaia ere edozein izan daiteke. Baldintzei buruzko informazio osoa daukazu Kultur Leioako webgunean: www.kulturleioa.com.

ZERAMIKA MASTERREKO IKASLEEN ERAKUSKETA

Azaroaren 10era arte ikus daitezke EHUko Zeramika-masterreko ikasleek lanak Kultur Leioako erakusketa aretoan: 16 pertsonak osatzen dute *Artea eta Funtzioa* master horren lehen edizioa. Sormenerako material gisa zeramika erabiltzen dute eta beraz da erakusketaren ardatza. Antolatzaileek diotenez arte-diskurtsoa aipatzeko utz liteke, prozesuan bertan baitago mamia.

Info+: www.kulturleioa.com

MR TALLER MECANICO

Coches, Motores Marinos y Fuerabordas

Mota guztietako konponketak: Azterketak, Gurpiak, Indargetzaileak, Soinua...

Tf. 94 430 17 81

Bidezabal Kalea 9
48993 GETXO



BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com



Luberr Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net
www.luberr.biz

- Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inautzea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

[erandio]

Jorge Gonzalez eta Javi Martin > Track1 musika-elkarteko kideak

“Herriko rocka ezagutzera emon eta taldeen lana duin egin gura dugu *Made in Erandio* diskoagaz”

Made in Erandio diskoa argitaratu dute Astrabuduko Track1 elkarteko lagunek. Herriko rock-musikaren bilduma da eta 22 talderen kantuak batzen ditu: 80ko urteetako taldeak hasi eta gaur egun jotzen dutenetara arte. Elkarrea 2012an sortu zen eta hau izan da bere lehen ekimena. Gainera, Elexaurre kalean hartu dute lokala, bertan musika-artxibo bat osatu guran.

—Elkarte nahiko barria da Track1, zer asmogaz sortu duzue?

—Musika gustuko dugu, gutako batzuek taldeetan jo dugu. Taldeentzako alternatiba faltaren aurrean (lokaletan, promozioari edota kontzertuei dagokienez), elkarre bat sortzea pentsatu genuen herriko taldeei laguntzeko, ahal den heinean. 2012an sortu genuen elkarrea, baina gehien bat aurten hasi gara lanean. Lokal bat alokatu dugu eta musika artxibo bat osatzen ari gara: fonoteka eta aldizkari artxiboa.

—Eta Erandioko taldeen lana ere bilduko du artxiboak?

—Bai. Artxiborako ideia sortu zen herriko taldeen musika batzeko asmoz: Erandioko talde batzuek sona izan dute herrialde mailan, beste batzuk musikaren gune ilunean mugitu dira, baina gero, hori dena ez



Info+: www.track1.webs.com

da islatzen, ez da ikusten. Agian laguntza txikia eskain diezaiekegu eta, gainera, jendea ohartuko da herri honetan musika egin egiten dela.

—Artxiboaz gainera, besterik egiteko erabiliko duzue lokala?

—Oraindino lonja atontzen gaude, baina hasi gara artxiboa osatzen: jendeak badauka etortzea diskoak eskatzera. Gainera, hitzaldiak edota disko-aurkezpenak ere antolatu gura ditugu.

—Eta lehen egitasmoa izan da diskoa?

—Bai, 22 talderen kantuak batzea lortu dugu. Arkeologia-lana izan da, maketak eta grabazioak bilduz, herritarrek asko lagundu digute; Alzaga eta Astrabuduko hainbat tabernatan eros daiteke bost euroren truke. Baina *Made in Erandio* proiektu zabalagoa da: abendu hasieran erakusketa ipiniko dugu kultur etxean, datoren urtean dokumentala egin gura dugu eta aurrerago liburu bat. Helburua da Erandioko rocka ezagutzera emotea eta musika-taldeen lana duin bihurtzea. ○

Mendiari buruzko astea

Atxazpe taldearen aste kulturala izango da 14tik 18ra eta lehiaketa ere antolatu dute



Info+: atxazpe.blogspot.com.es

Mendiari buruzko kultur astea antolatu du, beste behin ere, Atxazpe mendi-taldea. Urriaren 14tik 18ra izango da, Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. Eki-men nagusi bi egongo da: batetik, hitzaldiak, eta bestetik, argazki-lehiaketa.

Hitzaldiak 20:00etatik 21:30era izango dira: urriaren 16an, Alberto Ceberio Ortuzarrek hitz egingo du *Larrialdiak erdi mailako mendietan* gaiari buruz; hilaren 18an, barriz, Ferran Latorrek eskainiko du *8tik 8000 metroa* hitzaldia.

Bestalde, Mendi eta Natur Argazki-gintzaren XI. Lehiaketa egingo da. Urriaren 10a baino lehen aurkeztu behar dira

argazkiak, gehienez lau, eta kolorezkoak edo zuri-beltzak izan daitezke (15x20 cm-koak). Gaia, noski, *Mendia eta natura* izango da eta argazki bakoitzari izenburua ipini behar zaio. Esatea ez dutela onartuko ukitutako argazkirik.

Sari-banaketa hilaren 18an izango da, 20:00etan, aipatu kultur etxean. Lau sari emongo dute: lehenengoa 300 eurokoa, bigarrena 200 eurokoa eta hirugarrena 100 eurokoa; gainera, 80 euro emongo diote argazkirik originalenari. Epaimahaia gremioko profesionalak osatuko dute. Aurkeztutako irudiak, gainera, kultur etxean erakutsiko dituzte aste osoan. ○

TIRANTE PLATAFORMAK IKASTARO BARRIAK DITU

Egunotan abiatuko dituzte Lutxanako Tirante Plataformaren ohiko ikastaroak, baina oraindino badaukazu aukera izena emoteko horietako baten batean. Antzerki, hip-hop, yoga zein dantza garaikidea irakatsiko dituzte eta, horietaz gainera, euskara (hastapen-maila); antzerkiari dagokionez, nerabeentzako taldea ere egongo da. Parte hartzeko 25 euro ordaindu behar da eta gitxienez hiru hilabete iraungo dute ikastaroek. Beti legez, Lutxanako eskolan garatuko dira.

Info+: 644 433 373 eta www.plataformatirante.com

BELDUR BARIK ADIERAZI


Gazteei zuzendutako ikus-entzunezkoen lehiaketa martxan da, euren artean “*errespetua, bardintasuna eta indarkeria sexistaren prebentzio-jarrerak sustatzeko*”. Kategoria bi dago: 12 eta 17 urte bitartekoentzat bata, 18 eta 26 urte bitartekoentzat bestea. Ikus-entzunezko lanak bakarka zein taldeka egin daitezke eta azaroaren 11 baino lehen aurkeztu behar dira: “*kalitate teknikoaren edo artistikoaren gainetik, mezuaren kalitatea baloratuko da*”. Sariak azaroaren 15ean banatuko dituzte Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean, 18:00etan.

Info+: www.beldurbarik.org eta www.erandio.net

ITSASADARREAN BISITA GIDATUAK URRIAN


Ondareari buruzko jardunaldi europarren sasoia da eta, oraindino, bisita gidatuak antolatu ditu Erandioko Kultura-sailak Nerbioi itsasadarrean. Bisita bi egingo dira, zapatu bitan: urriaren 12an 10:00etan eta 19an 17:00etan. Ordu bi iraungo dute eta Alzagako ontzirekutik urtengo dira. Plaza kopurua mugatua da eta aurretik egin behar da erreserba. Gainera, bisitaren egunean urteera-ordua baino 15 minutu lehenago egon behar da ontzirekuan.

Erreserbak: 944 890 140 eta 946 025 891



Denboraldi berriko arropa prezio paregabeetan

Ibaiondo 7, 48930 Erromo-Getxo Tf. 94 656 21 57



Binilo apaingarria

Diseinatu zure lekua biniloarekin apainduz

Biniloaren tamaina: 43 x 58 zm
6 eredu ezberdin
Espatula dohainik

Eredu gehiago ikusteko, gure binilo katalogoa eskatu



cianoplan
global printers
applications + business

Villa de Plentzia, 6
GETXO
Gobela metro
geltokiaren ondoan

PINTXO-POTEA LARRABASTERRAN!

Pintxo eta potea 1,60 euro besterik ez da bariku arrastietan Larrabasterran, dinamika ezagun hori abiatu dute-eta hurrengo zortzi tabernek: Kux-Kux, Irubide, Urgitxieta, Barinatxe, Setien, Zutari, Muxarra eta Zeñek. Gainera, sariak zozketatuko dituzte kontsumitzaileen artean: pintxo-potea erostean 24 laukitxo osatutako kartulina jasoko dute, tabernaz taberna betetzeko. Behin kartulina beteta, tabernetako postontzietan sartu behar dute eta, 15ean behin, hotel-egonaldia zozketatuko dute pertsona birezat. Maiatzean, barriz, parte-hartzaile guztien artean astebeteko bidaia zozketatuko dute. On egin!

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI BATZORDEA

Udagoienean sartu gara eta daborduko Gabonetan ipini dute burua sopoloztarrek: Olentzero eta Mari Domingi Batzordea biltzen hasiko da urriaren 16an, 19:00etan; lehen bilera horretan zehaztuko dituzte ondorengo bilkurak. Gogoratzea Gabon-gau bezperan, hau da, abenduaren 24ko arrastian egiten dutela kalejira Olentzerok eta Mari Domingi Larrabasterratik udaletxera. Batzordeko lagunek herritar danak animatu gura dituzte bertan parte hartzera.

AZAROAREN 25EKO EKIMENA PRESTATZEA

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna da azaroaren 25a, eta Sopolan ekimena prestatzen hasi dira. Zehazki, performance bat egingo dute egun horretan eta berau antolatzeko tailerra antolatu dute Kurtzio kultur etxean. Mutilei zein neskei zuzenduta dago eta barikuro elkartzen dira, 18:00etan: parte hartu gura baduzu bertaraztea besterik ez duzu. Ekimena antolatu dute Sopolako Emakume Feministen Asanbladak, Itzartu taldeak, Udalak, Mankomunitateak eta Medicus Mundi elkarteak.

Urkon berdegune barria Ibar iparraldeko partzela bat zaharbarritu eta padura bihurtuko dute urtarilerako



Auzolanaren bitartez landatze publikoa antolatuko du Udalak abenduan

Larrabasterran berdegune barri batez gozatu ahalko da urtariletik aurrera. Izan ere, Urko ibarraren iparraldeko partzela bat zaharbarrituko du Udalak, eta padura bihurtu; zehazki, Gabela eta Lemotza ibaien arteko gunea da. Lanak hasita daude eta hiru hilabete iraungo dute: urte akabura arte.

Helburu bikoitza dauka Udalak: Urkoko ekosistemak leheneratzea eta gunea hori herritarrengana hurbiltzea. Horretarako, bertako espezedun basoa sortu eta urmael bi egingo dituzte. Era horretan, landare inbaditzaileen sarrera ekidin

gura dute: “horretarako modurik onena da bertako landarediaren birsorkuntza ekologikoa”. Belardi basati batek inguratuko dena paseatzeko ibilbide eta guzti, sopoloztarrek berdeguneaz goza dezaten.

Auzokideekiko lotura hori bilatu asmoz, gainera, auzolana sustatuko du Udalak, “landatzean laguntzeko eta kontzientzia bultzatzeko”; horretarako, landatze publikoa antolatuko du abendu partean. Proiektuak 191.021 euroko aurrekontua dauka (+ BEZ), eta kopuru horren %80 finantzatuko dute Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Aldundiak. ○

Ainara Lasuen Elorz > psikologoa, Sorkari elkarteko kidea

“Heriotzari buruz egia esan behar zaie umeei; lau kontzeptu jakin behar dute”



Info+: www.sorkari.com

Heriotzaren errealitatea haurren bizitzan gaiari buruz jardungo da Ainara Lasuen Elorz urriaren 24an, Kurtzio kultur etxean. Umeen galderei erantzuteko gomendioak emongo ditu.

—Gai potoloa ume batentzat, ezta?

—Heriotza eta bizitza oso garrantzitsuak dira umeentzat. Gai guztiei buruz jakiteko grina daukate, hauetaz ere bai; beraz, galdetzen dute. Gauza da galderei zelan erantzun, helduoi zaila gertatzen zaigu eta horiei buruz hitz egitea: batez ere heriotzari eta sexuari buruz. Adibidez, inurri bat zapaldu eta galdetzen dute zer gertatu zaion: askotan erantzuten diegu lo dagoela. Baina ez dago lo, hilda baizik. Horrek lo egiteko beldurra sor diezaioke umeari; beraz, egia esan behar zaio: hil dela. Hitzaldian azalduko dugu zer lau kontzeptu jakin behar dituzten heriotzari buruz. Horiek zeintzuk diren eta noiz esan behar diren azalduko dugu; izan ere, adinaren arabera umeek modu bate-

an edo bestean ulertzen dute-eta heriotza. Ume bakoitzak bere sasoiak dauka galdetzeko, berak agintzen du: gaia lantzeko ez dago adin jakinik, umeari galdetzen duenean erantzun behar zaio; eta batzuek ez dute sekula galdetzen. Gauza da komunikaziorako bideak zabaltzea umeagaz.

—Hori dena lantzen duzue Sorkarin?

—Psikologoak gara eta terapia egiten dugu. Gai hau familiagaz lantzen dugu eta sorkuntzaren bidez bideratzen dugu, askotan hitzak baino errazago adierazten

«Aldaketa asko dago bizitzan; gauza da zelan lagundu aldaketa egiten»

direlako gauzak objektuen aukeraketaren bitartez. Doluaren prozesua egiten laguntzea da kontua. Heriotza aldaketa da eta aldaketa mota asko dago bizitzan; heriotza eta dolu mota asko, ez bakarrik fisikoa: etxe edo irakasle aldaketa, e.a. Aldaketan zelan lagundu da kontua, horien artean heriotzak dakarren aldaketan. ○

DIDAK hAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

OINUTSIK KONTSULTA PODOLOGIKOA Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.



**Gosariak,
Pintxoak,
Giro eta musika onena
ONGI ETORRI!!**

Bentabxu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

EGUNKARIAK prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

ARGIHIZKIAK ERAKUSKETA BERANGOETA KULTUR ETXEAN HILAREN 15A ARTE

ArgiHizkiak literatura-lehiaketako 12 argazki eta horietan oinarritutako euskarazko testu labur onenak batzen dituen erakusketa urriaren 15era arte egongo da Berangoeta kultur etxean; astelehenetik barikura (12:00-14:00 eta 16:30-21:00). II. edizio honetako 12 argazkilariak hauek dira: Fede Merino, Elker Azketa, Willy Uribe, Aitor Galbarriartu, Iker Basterretxea, Sara de Diego, Nagore Ayo, Juan Gomez, Natxo Pedrosa, Eduardo Camino, Luis de Isusi eta Peru Isasi; lehenengo hirurak berangoztarrak. Galder Guenaga getxoztarren eta Hondarribiko Idoia Santurtunen testuek jaso dituzte sari nagusiak. Egizu elkarteak eta UK aldizkariak, Uribe Kostako Mankomunitateagaz, Berango, Erandio, Leioa eta Getxoko udalakaz, zein hainbat elkartegaz (Getxophoto, Berbots, Berbalamiñe, Aitxul, Bizarra Lepoan, e.a.), alkarlanean antolatuta dugu ArgiHizkiak.

16 ETXEBIZITZA TASATU ERAIKIKO DIRA SANTA ANAKO AUZOAN

Santa Ana auzoan kokaturik dagoen orubean 16 udal etxebizitza tasatu eraikiko dituzte. Etxebizitza horietako bat gizarte larrialdien kasuetara bideratuta egongo da. Horrela, interesatutako pertsonentzako izena emoteko epea urriaren 11ra arte izango da. Etxebizitza guztiak trastelekua eta garajea izango dituzte, baita bi logela ere, gainera, guztiz hornitutako sukaldeagaz emongo dituzte. Etxebizitza txikiak 170.170 euro balioko dute; handienek, oster, 187.990 euro. Esan legez, horietako etxe bat Berangoko Udalaren jabetza izatera pasako da, eta hori gizarte larrialdietan erabiltzeko aukera izango da. Gainerako 15 etxebizitzak esleipenean, Berangoko auzokideek lehentasuna izango dute. Interesa daukatenean onarpen-eskabide orri bat bete beharko dute, udaletxean zein Udaleko web-orrialdean eskuragai dagoena.


Info+: www.berango.net

BERANGO-MERANA ESKOLAKO TEILATUAREN EGOKITZAPEN LANAK

Daborduko ikasturte barria hasita dago, horregaz batera, Berango-Merana eskolako eraikin nagusian teilatuaren egokitzapen lanak hasi dira. Izan ere, Udalak teilatua hobetu eta egokitzeko lanak 148.228 eurogatik esleitu ditu. Hortaz, datozen hilabeteotan eskolan lanean izango dira langileak. Lanen finantziariorako, Udalak Foru Aldundiko diru-laguntza jaso du.

Karabigane futbol-taldea > 35. urteurrena

“Hastapenetan taldeko kideak lagun koardila ziren, eta partidak antolatzen zituzten”



Guztira 8 entrenatzaile dira 8 taldeentzat

Aurten 35 urte bete ditu Karabigane futbol-taldeak. Orain arteko ibilbideaz eta jokatzear dauden 35. denboraldia honetako aurreikuspenez berba egiteko Arkaitz Fernandezegaz, Zuzendaritzako kideagaz egon gara.

—Zelan sortu zen taldea?

—Hasieran Karabigane taldea lagun arteko taldea zen; horrela, auzo arteko partidua jokatzeko sortu zen. Garai haietan jende asko zegoen, eta orain dela 15 urte Uribe Kosta osoan ezagutzen gintuzten. Ondoren, baina, jokalarikopurua nabarmen jaitsi zen. Hurrengo urteetan, barriz, jokalarik gehiagok parte hartu zuen. Gaur egun, jokalarik asko dago kategoria guztietan; halere, zoritxarrez, lehen baino heldu gutxiagok parte hartzen du taldean.

—Zenbat talde duzue?

—Guk beti 3 kategoria izan ditugu: aurre benjamin, benjamin eta alevin taldeak. Txikienen taldean 34 ume dago 5 urtetik 7 urtera; benjaminetan, guztira 25 ume dago, 8 eta 9 urteen artekoak;

eta azkenik, alevinetan 33 haurrek jokatzeko dute. Beraz, guztira 92 jokalarik dugu une honetan.

—Urteurrena ospatzeko ekimenik egingo duzue?

—Printzipioz ez dugu pentsatu ezer berezirik egitea. Denboraldi guztietan jokalarik guztientzako askariak prestatzen ditugu. Bestalde, aurreko irailaren 20an taldeko sortzaileen omenez askaria pres-

«Azken bi denboraldietan taldeko jokalarik batzuk Athleticek fitxatu ditu»

tatu genuen egindako lana eskertzeko.

—Urte hauetan zeintzuk izan dira taldearen lorpenak?

—Lehenengo urteetan lehiaketa asko irabaztea lortzen genuen; halere, gero eta zailagoa izan da sariarik lortzea. Bestalde, azken bi denboraldi hauetan jokalarik batzuk Athleticek fitxatu ditu. Horrez gain, ikasturte bakoitza ezberdina da, eta guk Berangoko umeek hemen joka dezaten ilusioarekin jarraitzen dugu. ○

Gotzone Butron > Gaminiz elkarteko kidea

“Oraindik, ez dituzte hitzartutako neurri guztiak jarri”



Gaminiz Elkarteak Plentziako eta Gorlizko Udaletan mozioak aurkeztu ditu

Urteak daramatzate Gaminiz Bizirik elkartekoek auzoan hobekuntzak eskatzen; argiztapen hobea, espaloia Mungia Bideko errepidean... Beraiekaz bildu gara eskakizunen barri eman diezaguten.

—Zer da zehazki eskatzen duzuen?

—Gaminiz Bizirik 2011n sortu zen; izan ere, aurreko gobernuak asmoa zekukan Gaminizko parke batean etxebizitzak eraikitzeko. Hortaz, auzokideok erabaki genuen batzea eta elkarrekin sortzea; horrez gain, ikusirik gauza asko hobetzeko bazeudela auzoan: espaloia eraikitzea... Oro har, ikusten genuen auzoari udal-gobernuek ez ziotela kasu handirik egiten.

—Aldarrikapen hori zabaldu duzue?

—Bai, Gorlizko eta Plentziako udal-gobernuek gure ardura, eta horrek suposatzen duen arriskua helarazi diegu egindako bileretan. Ez hori bakarrik, baita gure nahia, orain arte auzoko parkea izan denak ere parkea izaten jarraitzeko. Gainera, garbiketa eta argiztapen egokia

eskatu diegu. Guk auzoaren egoera helarazi diegu.

—Ekainean, errepide ondoan, txorimaloak jarri zenituzten...

—Hor esan behar dugu Gorlizko Udalak badaukala jada plan bat espaloia eraikitzeko Gorlizko aldean. Hori izan

«Txorimaloak jarri genituen zegoen arriskuaz ohartarazteko»

da eskaeretakoa bat urte hauetan. Beti eskatu dugu hori, baina berehala premiazko neurri batzuk jartzeko ere exijitu diegu: zebra-bideak, seinale gehiago... Txorimaloak erabili ditugu jendeari, politikariei, gidariei ohartarazteko gune arriskutsua dela, baita aipatutako premiazko neurriak aldarrikatzeko ere.

—Irailen egondako istripuaren ostean, zein da egoera?

—Istripuaren ostean, Plentzia eta Gorlizko udal-gobernuekin bildu ginen, eta premiazko neurriak hitzartu genituen, oraindik batzuk baino ez dituzte jarri. ○

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T. 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T. 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

UKnatura
2013-2014 KURSOA
*BIOERAKUNTZA TALDEAK
*ARTISAU YABOIAK ETA KOSMETIKOAK
*BIOERAKUNTZAKO PROIEKTUAK
*ENERGIA BERRITZAGARRIAK
*HEGAZTI KAZAK
eta askoz gehiago.
www.uknatura.org 692705471 / 646742241

COMERCIAL de LIMPIEZA **VILLAR S.A.**
Harrizko moduko kalitatea!
-Garbiketa orokorrak
-Mantentze garbiketa
-Garbiketa industrialak
-Itsasontzi garbiketa
-Ospital garbiketa
-Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
-Legionellaren kontrako tratamenduak
-Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
-Lan osogarria
Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezavillar.com

zaindu
Esku Terapia Zentrua
Osteopatia - fisioterapia
Ane Nafarrate Martin
Doctor landa 4, Sopela
Telf.: 946026779

URDULIZKO UDALAK ESKOLEN INGURUKO UR- BANIZAZIOA BURUTU DU

Dabordurako, Urdulizko Udalak amaitutzat emon ditu eskolaren inguruan egiten zebilen urbanizazioa. Hala, 140.000 eurogaz 1000 metro koadroko azalera zeuden espaloiak barritu ditu. Gainera, udalak ez du bakarrik hondatuta zegoena konpondu; izan ere, autobuserako aparkaleku barria ere egin du autobus guztiak sar daitezela. Are gehiago, autobus aparkalekuaren ondoan, markesina eraiki dute, haizea, euria dela-eta herritarrek babes daitezela. Beraz, egindako lanen bidez eskolen inguruko irisgarritasuna eta segurtasuna nabarmen hobetu dituzte.

URIBE KOSTAKO BEHARGINTZAK ENPRESA-HAZTEGIA SORTZEKO ASMOA

Uribe Kostako Behargintzak hainbat dira aztertzen dituen lan-ildoak, betiere, eskualdeko ekonomia berpiztu eta egungo egoera hobetzeko asmoz. Hala, Behargintzak Urdulizko Udalaren laguntzagaz, eskualdeko pertsona ekintzaileei enpresa sortzeko laguntza emotea erabaki du. Horretarako, Udalak Behargintzari Zugaztieta kalean dagoen lokal baten kudeaketa uzteko asmoa du; bertan, 6 enpresa-ekimen martxan jarri ahalko lirarteke. Lokalak 80-90 metro koadro dauzka. Enpresa-haztegiak osatzen dituzten enpresen tipologiari dagokionez, ohikoa da, gizarte-gaietan jarduten duten enpresei eta abarrei lehentasuna emotea.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

Uribe Kosta

Gizarte Larrialdiko Laguntzak eskatzeko epea zabalik, azarora arte



Eskatzaileek Larrabasterran dagoen Mankomunitateko Zerbitzuetara hurbildu beharko dute

Azaroaren 22ra arte egongo da zabalik Gizarte Larrialdiko Laguntzak eskatzeko epea. Bere izenak dioen legez, laguntza horiek Uribe Kostarrek izan ditzaizketen larrialdietara bideratuta daude, betiere, larrialdi horiek gastu zehatzei aurre egiteko izan behar dute. Horrela, Larrialdiko laguntzekaz herritarrek lehen mailako beharrei erantzun ahalko diete; behar horien artean, jantziak, hezkuntza, prestakuntza, zein osasun-laguntza bezalako beharrak daude. Bestalde, laguntza horregaz Uribe Kostako herritarrek ohiko etxebizitza erabili eta eusteko gastuari aurre egin diezaiokete. Horrez gainera, Uribe Kostako herritarrek alokairu gastuak ere pagatzeko erabil dezakete laguntza hori, gainera, eskatzaileek etxebizitza erosi edo ostatua lortzeko hitzartutako kredituen interesetatik eta amortizaziotik eratorritako gastuei ere aurre egiteko balia dezakete. Azkenik, laguntza jasoko

duteneak aukera izango dute linea zuri-ko altzariak eta etxe-tresna elektrikoak erosteko gastuak ordaintzeko. Hortaz, esan legez, Gizarte Larrialdiko Laguntzek urgentziatzeko kasu oso konkretuei erantzuten diete. Horrela, kasu haue-tan euren egoera ekonomikoa lasaitze-

«Lehen mailako beharretarako, alokairu, kreditu edo altzariak ordaintzeko balio dezakete laguntzak»

ko laguntza erabiltzeko asmoa daukateneak Uribe Kostako Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuetara jo beharko dute, Larrabasterran dagoen Gatzarriñe Kaleko 2. zenbakian dagoen bulegora. Hori bai, hitzordua aldez aurretik eskatu beharko dute. Aipatutako laguntzak urtero martxan jartzen dituzte, egoera ekonomiko larriena bizi dutenei laguntza eskaintzeko asmoz. ○

Harremanetarako: 946 763 674

Urr. 7 - Urr. 21

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 944 911 337

ERAKUSKETAK

GETXO

- **Organik taldearen 10 urteko ibilbidea.** Urriaren 31ra arte. Algortako Torrene aretoan.
- **Getxoarte.** Urriaren 31ra arte. Merkataritza eta ostalaritza guneeetan.
- **Alicia Sainzen grabatuak eta margoak.** Urriaren 11tik 31ra. Algortako kultur etxean.

PLENTZIA

- **Plentzia 1927-2013.** Urriaren 14tik 24ra. Goñi Portalen.

ANTZERKIA

GETXO

- **Kontularien kluba.** Urriak 11, 19:00etan. Algortako kultur etxean. Doan.
- **Ipuinaren ordua: Goazen itsasora.** Urriak 17, 18:00etan. Villamonteko haur-liburutegian. Doan.
- **Ipuin-kontaketa.** Urriak 19, 11:00etan. Algortako kultur etxean.

LEIOA

- **A donde vamos despues de la que liamos.** Urriak 17, 19:30ean. Kultur Leioan. 3 euro.
- **Munduari itzulia.** Urriak 20, 18:00etan. Kultur Leioan. 5 euro.
- **Limits.** Urriak 24, 20:00etan. Kultur Leioan. 10 euro.

ERANDIO

- **Hiru.** Urriak 17, 20:00etan. Altzagako azoka zaharrean. Doan.
- **Amores y desamores.** Urriak 19, 20:00etan. Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. 2 euro.

GORLIZ

- **Maite Arrese ipuin-kontalaria.** Urriak 19, 18:30ean. Sertutxenan.



Extremadurako Etxea, Astrabuduan

► Kultur astea

Extremadurako kultur astea Erandion

Auzo bizia da Astrabudua, horren lekuko dira urrirako antolatutako kultur aste biak: Atxazpe mendi-taldearen asteari buruzko informazioa duzu UK-ko zenbaki honetan, Erandioko orrietan; eta Extremadurako Etxearen asteagaz gatzokizua atal honetan. Hilaren 13ra arte hamaika jarduerak izango dira kultur etxean eta Josu Murueta plazan: urriaren 8an, Extremadura eta Euskal Herriari buruzko bideo-emanaldiak, 19:00etan; hilaren 9an, konbinatuei buruzko hitzaldidastatzea; urriaren 10ean, *Sueños rotos* liburuaren aurkezpena, 19:30ean. Eta hilaren 12an eta 13an, Extremadurako eta Euskal Herriko produktuen azoka egingo dute. On egin eta ondo pasa!

- Non: Astrabuduan • Noiz: Urriaren 13ra arte

MUSIKA

LEIOA

- **Zoobazar eta Carmen Paris.** Urriak 11, 21:00etan. Kultur Leioan. 18 euro.
- **Nico Wayne Toussaint & Travellin' Brothers.** Urriak 18, 22:00etan. Kultur Leioan. 10 euro.

SOPELA

- **Gari.** Urriak 18, 21:30ean. Kurtzio kultur etxean. 6 euro.

PLENTZIA

- **Kantaguneren kontzertua.** Urriak 19, 18:00etan. Goñi Portalen.

BERANGO

- **'Dvorak eta musika klasikoa' saioa.** Urriak 19, 19:00etan. Berango Antzokian. 3 euro.

ERANDIO

- **Dantza Alai orkestragaz dantzaldia.** Urriak 20, 17:30ean. Altzagako azoka zaharrean. Doan.

ZINEMA

BERANGO

- **Los Croods.** Urriak 13, 18:00etan. Berango Antzokian. Doan.
- **Hanburgesa zaparrada.** Urriak 20, 18:00etan. Berango Antzokian. Doan.

SOPELA

- **A roma con amor.** Urriak 17, 18:00etan. Kurtzio kultur etxean. Doan.

LEIOA

- **La bicicleta verde.** Urriak 8, 20:00etan. Kultur Leioan. 2 euro.
- **Hijos de la medianoche.** Urriak 15, 20:00etan. Kultur Leioan. 2 euro.
- **15 años y un día.** Urriak 22, 20:00etan. Kultur Leioan. 2 euro.

BESTEAK

GETXO

- **'Nada que ver' ipuin-bildumaren aurkezpena (Sortze idazketa tailerrean).** Urriak 9, 19:30ean. Villamonteko kultur etxean. Doan.

PLENTZIA

- **Bisita gidatua: Itsasoa harrian.** Urriak 13. Plasentia Butroe museoa eta alde zaharreko kaleetan.
- **Hitzaldia: Arrezife artifiziala eta edariaren zahartze-prozesua.** Urriak 17, 19:00etan. Goñi Portalen.
- **Bisita gidatua Itsas Estazioa.** Urriak 18. Izen-emotea Goñi Portalen eta Turismo-Bulegoan.

ERANDIO

- **Hitzaldia: Larrialdiko erdi mailako mendietan.** Urriak 16, 20:00etan. Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean.
- **Hitzaldia: 8btik 8000 metrora.** Urriak 18, 20:00etan. Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean.



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Pedalei eragin!

Profesionalen pareko ibili ziren Gorkizen txirrindulari gazteak, XXII. Mountain Bike martxan. Irailaren 22an izan ziren probak: lasterketa luzea 42 kilometrokoa, laburra 30 kilometrokoa eta umeen martxa 4 kilometrokoa. Helduen antzeko ibili ziren gazteenak ere, pedalei gogotsu eraginez. Martxa horretan, gainera, danek irabazi zuten, txorizo-bokata ederra lortu zuten-eta. Aupa, gazteak! Gogor eragin!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Denboraren

triki-traka, triki-traka, triki...

Telleteko tren-gordelekuan zain dago, konpontzeko edo urteteko, trena...

1975. urtea edo izan zitekeen, edo hamar urte beranduago...

Txoritxo batek emon zigun argazki honen barri, alemanierazko webgune batean ikusi zuela, antzeko beste argazki batzuek batera, gure trenbideetan ibilitakoen eta orokorrean trenen gaineko informazioa batzen duen sareko gune batean dagoela...

Trenbideak, sareak, eta erlojuaren triki-traka, trenen tik-taka...

[berbetan]

Donostiako Zinemaldian *Amaren eskuak* filmaren estreinaldiaren (irailak 24) biharamunean elkarrizketatu genuen Mireia Gabilondo (Bergara, 1964) zuzendaria. Karmele Jaio idazle gasteiztarraren izen bereko eleberrian oinarritzen da filma, eta Gabilondok aitortu duenez, argi zuen hasieratik pantaila handirako istorioa zela. ETB1eko hainbat telesailetak gidoigile eta aktore izan da bergararra, besteak beste: *Jaun ta jabe*, *Ertzainak* eta *Martin*, hala aktore nola gidoigile. Eta azken urteotan zinemagintzan murgildu da buru-belarri: *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* (Fernando Bernuesegaz batera, 2006), *Barrura begiratzeko leihoak* (hainbaten artean; 2012) eta bakarka gidatu duen *Amaren eskuak* filmetako zuzendari da.

Mireia Gabilondo

barrutik, zuzenean: euskal zinema

Testua: **I. Sagarminaga** / Argazkia: **Iñaki Makazaga**

—Zeuk zuzendu duzun *Amaren eskuak* filmaren estreinaldi handia Zinemaldian. Zer sentitu zenuten? Kritikak zelan? —Ondo joan zen. Pozik! Jende asko etorri zen; eta esaten zutena, nire ustez, polita izan zen. Gau polita izan zen! Egia da lan-taldeko jende asko etorri zela, pelikula ikusi gabe zeukaten... Hasteko, beraiek nola jasotzen zuten ikustea nerretzat oso inportantea zen; eta gero mundu guztiak ere, noski! Egia esanda, ni poz-pozik geratu naiz. Kritika txarrak ez dira etorri, oraindik! Beno, atzo zer edo zer entzun nuen... Nik uste, gaur periodikua erosi eta hortxe egongo direla! Oraindik ez naiz kalera irten eta ez dut ezer begiratu... —Zinemaldian euskaraz estreinatu den film luze bakarra izan da!

—Pena handia sentitu dut, zer esango dut bada! Garai oso zailak bizitzen ari garela esan nahi du horrek, lehortea! Baina lehortea dirurik ez dagoelako, eta ez jendeak egiteko gogorik ez daukalako! Horrek pena handiagoa ematen, sortzen du. Ez dakit zer gertatuko den... Iaz ere pixka bat beheruntz joan zen, aurten oke-

rrago... Datorren urtean ez dakit zer edo zer egingo den! Bitartean jende pila dago lanik gabe. Izan ere, zorte handia izan nuen iaz Baleukok (ekoizlea) pelikula egitea erabakitzea, azkenean; ezen diru-laguntza askorik ere ez du izan... Beraz, guretzat ondo! Baina egoera nola dagoen? Oso gaizki! Zine aretoetara hurbiltzeko deia egin nahi nuke. Euskal zinemarekin zera gertatzen delako, jendea ez badao ez duela askorik irauten zineetan, segituan kendu egiten dutelako... Hemen ez da

“Garai oso zailak bizitzen ari gara, lehortea! Dirurik ez dagoelako; eta ez jendeak egiteko gogorik ez duelako!”

erraza mantentzea. Beraz, joateko gonbita egin nahi nuke, eta lehenbailehen hurbiltzeko zineetara, badaezpada...

—Hizkuntza lanketa berezia egin duzu; euskalkiak, tokiko hizkerak, erdarak...

—Hala da, bai. Beti gustatzen jat, egia esan, horrelako zer edo zer egiten dodanean, historia baten barruan hizkuntza

nolakoa den adieraztea, eta ikusaraztea. Nobelan dena batuan idatzita dago, baina nobelan “Lekeitiokoak dira” esateko aukera duzu, baina zinea egitean eta pertsonaiek beraiek hitz egiten dutenean bere ahotik... Erabakia hor hartu beharra dago. Nik argi neukan, hasiera-hasieratik, sinesgarritasun puntu bat-edo emateagatik, puntua ez, horrela delako, inportantea zela kontu hori nerretzat. Hala, familia barruan lekeitiarrez hitz egiten dute, beraiek handik datozelako, eta gaztetan

ahizpa biek horrela hitz egiten zutelako beraien artean... Orduan, familiatan gertatzen den bezala: etxe barruan hizkuntza bat egiten da, eta kanpoan batua egiten dugu denok edo... Batez ere, orain dela urte batzuk. Etxekoan papera egiten duen pertsonaia, adibidez, izeko, Alemaniara joan baldin bada, ez du batua ikasteko



betarik izan, orduan hona bueltatzen danean bere euskara egiten du... Eta horregatik hartu nuen erabakia... Baita ere, ospitalean alboan duen emakumeak ez daki euskaraz, erdaraz egiten du; Euskal Herrian oraindik horrela bizi garelako. Eta ingelesa berdin, senarra ingelesa baldin bada, beraien artean euskara eta ingelesa erabiltzen dute... Argi eta garbi nuen hizkuntzaren trataera inportantea izango zela.

—Zinemaldiagaz esperientzi ezberdin bi bizi izan dituzu: bata, iaz beste zuzendari batzuekaz sortutako *Barrura begiratzeko leihoak* ez zuten onartu ere egin (ezta Angel Amigoren *Memorias de un conspirador* ere), bestea, aurten *Amaren eskuak* bai. Urte bitan egoera kontrajarriak...

—Bai, bai... Momentuak halakoak dira, gazi-goza askotan. Orduan hura bizitzetza tokatu zitzaigun, pena handiarekin gainera, hasieran baietz ematen zuelako, gero gauzak hain arraro xamar joan ziren... Baina gero, egia esanda, *Barrura begiratzeko leihoak*-ek bere tokia izan zuen, bere publikoa, ikusi zen... Alde horretatik oso pozik geratu ginen; bere ibilbidea egin zuen. Halere, egia da, zerbait gertatu zela... Baina, aprobetxatu nahiko nuke esateko Festibaletik kanpo ere zinemak baduela bere pisua eta, nola esan, bere beharra eta emana gure gizarte honetan. Egun hauetan zinera joateko dauden ilarak eta sortzen den zera hori ikusten duzu, normala den bezala, baina datorren astean zineak utzik egongo dira, beti bezala! Beraz, horretaz ere pentsatu beharko genuke; ea zer pasatzen zaigun...

—*Amaren eskuak* Karmelean Jaioaren nobelaren moldapena da. Moldapenez uste zabala: *“liburua hobea, beti!”*. Ostera, esana duzu liburua irakurri eta irudikatu egin zenuela, pantailara handira eroan gura zenuela. **Aurreiritziei aurre eginez...** —Hala da; horrelakoak kontuan hartu beharrekoak dira beti, baina ez dago besterik, listo! Askok, edo inork... hori esan-go edo pentsatuko du; eta bale, listo!

Denoi gertatu izan zaigu inoiz, niri neuri ere bai. Kontua da, historia edo istorio onak badira... Pelikula asko daude nobela on batean oinarritutakoak, antzerkiera ere eramandakoak badira; horrek zer esan nahi du? Historia-istorio batek ikutzen zaituenean ikusten duzula badaukala beste zera zabalago bat. Hori sentitu nuen nik, irakurtzerakoan harrapatu egin ninduela!

“Bakarrik egiten dudan lehenengoa da, eta egin dut, behintzat! (...) Ez dago errezetarik, egin egin behar da!”

Oso ondo idatzita dago, gauza politetz hitz egiten du, nerretzat gertukoak... Eta hori sentitu nuen, irudiekin kontatzeko gogo hori. Orduan, beldurra? Beti daukazu, baina beldurrarekin ibiltzen joan behar dugu, alde batetik bestera, eta egiten!

—**Filma egitekotan zeundela jakitean, Karmela Jaiok berak esan zuen harritzen zela, nobelak ez ei duelako “akzio” handirik, barruko kontuez diharduelako... Ez da errazena halakoak irudikatzea, zelan garatu da erronka hori?**

—Istorio honetan horixe zen kontaktu nahi nuena, beraz, hasiera-hasieratik irudi horiek etorri zitzaizkidan neure burura; ikustea hori nola interpretatzen den... Azken finean, aktore batek hori egin behar du, bereganatu eta hori erakutsi. Ni hori egiten ohituta nago, ondo ala gaizki, ala

“Argi nuen: pertsonaien arteko harremanak, begiradak, isiluneak, bakardadea... Eta horiek grabatu, irudikatu”

dana dalakoa... Orduan, nerretzat erronka... bai, baina hori zen egin nahi nuena, eta horretan saiatu naiz. Agian akziozko pelikula bat egitea zailagoa egingo litzaidake niri! Ez dakit... Norberak bere egiteko modua daukagu, edo barruko gogo horiek... Orduan, nerretzat erronka hori zen, baina pelikula ere horixe zen, eta gogoia ere

bai. Asmatu dudana ala ez, jendearengana iritsi den ala ez... Hori beste kontu bat da, baina, nik garbi nuen zer zen: pertsonaien arteko harremanak, beraien arteko kontuak, begiradak, isiluneak, bakardadea... Hori da azkenean grabatu behar dena, horiek dira irudiak.

—**Idazlea, zuzendaria eta pertsonaia nagusiak ere emakumezkoak. Baina ez da**

emakumezkoentzat bakarrik!

—Protagonista emakumezkoa da, ama ere hor dago, beraien arteko harremana ikusten da, gero izeko dator; Karmelek idatzi du, nik zuzendu. Emakumeen istorioa da, baina nik pentsatzen dot unibertsa dela; gizona ere halako gauzak asko bizitzen dituzte. Baina arraroa egiten zaigu, gutxitan gertatzen delako oraindik ere. Halere, normaltasun handiz egin dut nik. Oraingo honetan hau izan da, beste hurrengo batean ez dakit zer izango den. Horren barruan, bai, igartzen da emakumeen artean egindako zerbait dela. Egun ikusten da, bai gaixoak, bai pertsona helduak edo gure familiakoen zaintza-lan horiek oraindik emakume-esparruko zeregina dela, nahiz eta horrekin ez dudana esan nahi gizona ere dutela egiten! Ez zai-

rio honetan gizona ere garrantzitsuak dira, senarra, anaia, lankidea... Kalera urtetean gertatzen zaiguna da, emakumezkoen artean eta gizona artean dauzkatagula harremanak.

—**Bakarka zuzendu duzun lehenengo filma da hau, zelan bizi izan duzu?**

—Ondo. Batzuetan bakarrik (kar, kar), besteetan oso ondo inguratuta! Pelikula

“Mikel Laboari buruzko ikuskizuna, datorren otsailean estreinatuko dugu, antzokietan”

baten prozesua oso luzea da, momentu ezberdinak bizi dituzu. Denbora asko pasatzen duzu zuk bakarrik pentsatzen nola egin... Gero, filmatzera zoazenean, bat-batean, hainbeste jende zure inguruan, zuri begira! Ea zer nahi duzun galdezka... Gaitututa bezala sentitzen zara! “Ai, ama! Hainbeste jende; egunero!” Gainera denak zuk nahi duzun horretara... Beti esaten dut, baina egia da, oso-oso eskertzekoa dela filmatzean gertatzen dena, oso babes-tuta sentitzen zara. Harreman estua izan dut hainbeste lankiderek! Eta tupustean, berriz, zu bakarrik muntatze-orduan. Maialen Sarasuarekin egin dut muntaketa, oso gustura, oso ondo pasatu dut, oso

argi neukan berarekin egin nahi nuela. Baina, bi pertsonaren arteko gauza bihurtzen da. Gero postproduktoria, audiora eta... zeu zoaz! Alde batetik bestera pelikularekin, egin behar den prozesu horretan guztian... Bakarrik egiten dudana lehenengo pelikula da, bai, eta egin dut, behintzat. Bidean asko ikasi dut, ez dakit zer izango den, baina ondo sentitzen naiz, bai!

—**Gurean zuzendari emakumezko askorik ez da. Bidean daudenei eta ahalegintzen dihardutenei zer esango zenieke?**

—Uste dut ez dagoela errezetarik, egin egin behar da. Oraindik emakumezko gutxi gabela argi dago; gainera lan batzuetan oraindik are emakumezko gutxiago... Horrek zer esan du? Orain arte zaila izan dela, gizona zera izan dela, eta nahi duguna... Baina, azkenean, geuk egin behar dugu, eta horretarako egin egin behar da, ez da besterik! Esango nieke: bakoitzak bere barrura begiratzeko, eta fuere sentitu! Ez dago besterik norberarengan konfiantza jartzea baino! Egiten duzuna egiten duzula, danean eta danerako. Egin!

Eta hurrengoa zer? Antzerkia

—**Eta aurrerantzean zein esparru aukeratuko duzu? Egitasmo barririk?**

—Ni egiten joango naiz, lehen esan dudana bezalaxe. Askotan, ez dakidan gauza bat, bat-batean hor azaltzen zait, gogo batengatik, zerbait sentitu dudalako, irudi bat etorri zaidalako, zerbait irakurtzen dudalako, paseatzen nabilela zerbait pentsatzen dudalako... Nik neuk ere ez dakit zer etorriko zaidan! Edo zer eskainiko didaten... Azkenean, hori da bizitza, edo egiten ditugun lanak. Niri behintzat asko etorri egiten zaizkit. Bestalde, dagoeneko proiektu batean gaitzta:

Tantaka Teatrotik, Mikel Laboari buruzko ikuskizuna, datorren otsailean estreinatuko duguna, antzokietan. Horretan alde bietan egongo naiz, zuzendari Kike Diaz de Radarekin batera, eta aktore ere bai. Bost izango gara eszenatoki gainera: Iñaki Salvador pianoan, Angel Unzu gitarran, Mario Lasarte kantatzen eta aktore bi, Iñaki Rekarte eta ni neu. Atxagak egingo du gidoia, Zumetaren irudiak izango ditugu... Hor gabiltza, prestatzen oraindik, unibertsua ixten ala zabaltzen, ez dakit nola esan...

—**Oraingoz, beraz, zinematik at.**

—**Bai zineman bai antzerkian, aktore eta zuzendari (izan) zara; alde biak ondo eza gutzen dituzu. Zer egotziko lioke bata besteari?**

—Oso desberdinak dira, bai. Batetik, aktore zaren zuzendariaren esanetara zaudete beti, nahiz eta lankide izan. Zuk zeurea jartzen duzu, zuzendari horrek jartzen uzten dizunaren arabera beti. Eszenatokian, pertsonaia bat egiten zaudenean, zuk zeurea bakarrik egin behar duzu; zuk lan “txiki” hori egiten duzu, oso handia den arren, baina lana pertsonaia hori egitea da. Bestetik, zuzendari-lanetan beste handitasun batekin ikusi behar duzu proiektu osoa; aktoreekin lan egin, erakutsi eta horiez gain, alde tekniko guztia daukazu, zinemaren batez ere. Hori dana pentsatu egin behar duzu, eta beste hainbeste egin: beste hainbeste jenderek, hau eskatu, nola, hau eta beste... Azkenean, dena daukazu buruan, eta dena izan behar duzu kontuan! Pelikula zeuk bakarrik duzu buruan, nahiz eta jende askorekin hitz egin, kontrajarri, aholkua eskatu... Baina, azkenean, filmatzeko orduan zeu zaudete hor, eta esan behar duzu hau hala, hori... Antzerkian ere berdin; pertsonaia guztiak zeureak dira, denak eta dena kontrolatu behar dituzu... Gozamen oso desberdinak dira, nahiz eta biekin oso ondo pasatzen dudana. ○



Naturagaz harremanean

Bizitza furgoneta batetik: hondartza txiki baten alboan lotu, motorra amatatu eta lotara sartu. Biharamunean txorien kantuek eta lehen eguzki-printzek esnatu, eta itsasoko ur gardenetan bainatu, goxo-goxo. Naturarekiko harremanaz gozatu, ordutegirik eta ordularirik gabe: bakarrik eguzki epela, itsaso garbia, txoriak eta lasaitasuna. Horrela ibili zen Ane Basagoiti algortarra abuztuan, Asturias aldean, eta esandakoaren adierazle fidel dira irudiok, plan gozagarriaren erakusle argiak.

Argazkiak: **Ane Basagoiti Gonzalez**







Txakolina > hemengo mahatsaren zukurik gozoena

Bertoko mahatsez egindako ardo zuriaren deiturak

Irail aldera txakolingileak mahatsak batzen hasi ohi dira; aurten, ostera, udaberri ona ez, eta mahatsaren bilketa atzeratu beharko dute. Datorren otsail aldera, barriz, aurtengo uztaren txakolinaren barri izango dugu, hura edatean, ziur. Hemen, gure txakolinaren prozesua aztergai.



Berangon 22 ekoizle dira

Uribe Kostan sortzen den txakolina, sarri pentsatu baino oparoagoa da. Hamarkada luzeetan mahats-mordo ugari landatu dituzte gure eskualdeko lurretan. Berangoko txakolingileen elkarteko kideek diotenez *“orain dela 30 urte bertoko mahatsez eginiko txakolina zaila zen edaten”*. Orain, ostera, urteetako lanaren eta apostuaren ostean Bizkaiko, gure txakolina prestigioa hartuz doa. Gurean, ardo zuriak bide ezberdinak hartu ditu: Biz-

kaiko izendapena daukan txakolina; eta izendapenik bakoa. Bide bi horiek urratzeko, batzuen zein besteen eskarmen-tuak orriotara ekarri ditugu.

Izendapenari so

Itsasmendiko lagunak urteak daramatzate Uribe Kostan mahatsak hazten, beste-

Uribe Kostan Itsamendik 4 mahasti dauzka; guztira, 14 hektarea

ak beste, Gorlizen, Plentzian, Leioan eta Erandion mahastiz beteriko lur zabalak dauzkate. Guztira, 14 hektareak osatzen dute Itsasmendiko mahastia; Gorlizen 1, Lemoizen 3, Leioan 3, eta beste guztiak Erandion daude. Itsamendik Bizkaiko Txakolinaren deitura dauka; jatorrizko deitura, alegia. Hala, Garikoitz Riosek, bertako arduradunak euren lanaren barri emon digu; berak azaldu legez, Itsasmendikoek mahastiak zaintzen dituzte,



Gorlizen, hektarea bakarra dauka Itsamendik

ondoren, mahatsa batzen dute, eta azkenik, horregaz txakolina egiten dute. Hortaz, prozesu osoaren jabe dira, baina mahatsa batu ostean, Uribe Kostatik Gernikara eroaten dute mahatsa. Izan ere, upategia Gernikan baitaukate. Besteak beste, Itsasmendikoek garrantzi handia emoten diote lurraren aferari; hala, lur

egokiak, gustatzen zaizkien lurak topatzen dituztenean, lurak alokatzen dituzte, eta bertan mahastiak landatzen dituzte. Riosen hitzetan Uribe Kostako lurrak on-onak dira: *“Leioako mahastiagaz Bizkaian, estatuan eta mundu osoan sekulako arrakasta izaten ari den Itsamendi 7 txakolina ekoizten hasi ginen 2003an.*

2008ra arte soilik Leioako mahatsez egiten genuen, ondoren, hainbat mahastitako mahatsez egiten hasi ginen.” Itsasmendikoek 350.000 milioi kilo mahats batu zituzten iaz; aurten, barriz, 250.000 kilo batuko dituztela aurreikusten dute, %30-35 gutxiago, alegia.

Itsasmendik duen Bizkaiko izendapenari buruz honakoa adierazi digu Riosek: *“Arau batzuen barruan lan egiten dugu; hori da izendapena: jatorrizko produktuak arau batzuen barruan lan egi-*

2003tik 2008ra “Itsamendi7” txakolina Leioako mahatsez soilik egin dute

tea”. Mahastiek erregistratuta egon behar dute, parametro batzuen barruan ekoizti beharrekoa da, eta azkenik, txakolina eta komite kata batek egon behar du Bizkaiko txakolinaren izendapena lortzeko. Riosen iritziz, izendapenaren helburu nagusiak kontrola egitea eta promozioa egitea dira. Hala ere, badira, izendapenetik kanpo lotzea erabaki dutenak; horiek ere, Uribe Kostako txakolina egiten dute. ○

Berangoko txakolingile-elkartea > bertoko ardo zuriaren, txakolinaren, ekoizle

“Bizkaiko txakolina sortu aurretik hasi zen Berangon txakolina egiten, hamarkadak daramatzagu bertan txakolina ekoizten”

Berangoko txakolingileek urtero, mahatsa batu, eta txakolina lortzeko prozesuari ekiten diote. Urtero herriko txakolinaren gaineko jaieguna antolatzen dute; lehen, Berangoko Txakolinaren Eguna legez ezaguna zen, baina orain dela urte gitxi batzuk, izendapenagaz arazoak izan zituzten, eta ordutik Berangoko Ardaoaren Eguna izenagaz ospatzen da. Izan ere, ekoizten duten txakolina “izendapenik bakoa” da. Berangoko txakolinaren

gainean gehiago jakitearren Cesar Uriarte, Iñaki Aresti, Karmelo Larraskitu eta Imanol Rodriguezegaz izan gara.

—Berangoko ekoizleek zelan ekoizten duzue txakolina?

—Denok prozesu antzekoagaz egiten dugu, uzta jasotzen dugu egun pare batean. Prentsatu aurretik, mahatsak barruan dituen haziak kentzeko makinatik pasatzen dugu, ostean prentsatik pasa-

tzeko. Prentsatik pasatu ostean, atera dugun ura barrilean uzten dugu, bi egun pasa ostean ontzia aldatu beharko dugu. Gainera, metabilsufitoa botatzen diogu urari; mahats-zukua garbitzeko, eta horrez gain, alkoholaren kantitatea neurtzen dugu. Hala, fermentatzen uzten dugu, eta fermentazioa azkartzeko, arteak eta legamia botatzen dizkiogu zukuari. Horrek esnegain antzekoa sortzen du ur gainean, eta laguntzen du,

hain zuzen, fermentazio prozesua azkartzeko, alkohol maila altuagoa lortzen. Hala, alkohol dentsitate egokia erdietsi duenean, 0,995 maila inguru, orduan, ixten dugu. Ondoren, 48 ordu gutxi-gorabehera itxita uzten dugu, eta ostean, beste ontzi batera aldatzen dugu txakolina; leku batetik bestera. Hortik txakolin botila bat ateratzen dugu, eta Foru Aldundira botila hori aztertzeraz eramango dugu. Une horretan ere, metabilsufito apur bat gehiago botatzen diogu, txakolina ez herdoiltzeko. Behin aztertuta, txakolinaren ezaugarriak jakingo ditugu; garrantasun maila, alkohol maila... Hala, aste batzuetara enologo bat etxera datorkigu, eta horrek esaten digu nola hobe dezakezun ardoa, zelako tx-

kolina lortu duzun. Hortaz, abendu alde-rako badaukagu, gutxi-gorabehera botiletan sartzeko. Hori bai, batzuek hori egiten dute; beste batzuek, barriz ez. Denetarik dago, guztira Berangon, 22 ekoizle gara. Guk, oro har, etxerako egiten dugu, batzuek, ostera, ingurukoei saltzeko.

—Bizkaiko izendapenik ez daukazue...

—Gu Bizkaiko izendapena aurretik hasi ginen txakolina egiten. Kontua da, guri ez digutela uzten erabiltzea txakolin izena; izan ere, ez daukagunez izendapenik, esaten dute izen hori bakarrik izendapena daukaten ardo zuriak erabil dezaketela, jatorrizko izendapena hain zuzen. Izan ere, Bizkaiko txakolina aurretik bazegoen beste erakunde bat, horretan txakolingile-



ek parte hartzen genuen; beraz, ulertzen dugu osasun-azterketa igarotzea edan ahal izateko, baina ez, jatorrizko izendapena izatea txakolin deitu ahal izateko. Jatorrizko izendapena lortzeko Bizkaiko txakolinera izena emon behar da. Horrek suposatzen duen gastuagaz. ○



BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Perseo zineforuma Leioan

Emakumezko **zuzendariei** begirako **zikloagaz** hasiko da denboraldia **urrian**



Hannah Arendt filma emon zuten hilaren 1ean

Udagoieneko giroak, besteak beste (noski!), erakartzen ditu zinemasaleak barriro ere zineetako besaulkietara; hala, prest dira han-hemengo egitarauak.

Leioako Perseo Zineforum elkarteak esaterako andrazko zine-zuzendariei begirako zikloa abiatu du daborduko. Ohi legez, martitzenetan izaten da hitzordua, arrastiko 20:00etan eta sarrerak euro bi balio du. Horrenbestez, martxan dago Perseo Zineforumeko eskaintza, eta esan legez, urria emakume zuzendariei eskaini diete. Zikloko lehenengo filma, Margarethe von Trotta zuzendutako *Hannah Arendt*, hilaren 1ean pantailaratu zuten. Martitzen honetan, hilak

8, Ekialde Ertaineko lan bat egongo da ikusgai, Haifaa Al-Mansourrek zuzendutako *La bicicleta verde* (Saudi Arabia; 2012) hain zuzen ere. Hurrengo lana, hilaren 15ean eskainiko dutena, Deepa Mehta zuzendariaren *Hijos de la medianoche* (Kanada-Erresuma Batua; 2012), izango da. Ostean, urriaren 22an, Oscar sarietarako Espainiar hautagai izendatu duten Gracia Querejetaren *15 años y un día* (2013) filma emongo dute. Azkenik, ziklo hau amaitutzat joko duen lana Anaïs Barbeau-Lavalette zuzendari duen *Inch' Allah* izango da. (Egitarau horretan filmen ordena alda daiteke). Tamalez, filmok erdaraz eskainiko dituzte.

Horri lotuta, emakumezko zuzendariak berabari izanik, ezin aipatu barik utzi Mireia Gabilondok (ikus. elkarrizketa 30. orriari) zuzendu duen euskarazko *Amaren eskuak* filma ikusteko aukera

«Kirol-portuko (Getxo) zineetan Mireia Gabilondoren Amaren eskuak»

dagoela (ikusle kopuruaren arabera luzatuko dute egonaldia) Getxoko kirol-portuko Getxo Zinemak zineetan.

Bestalde, datorren ziklorako gaia ere erdi erabaki dute Perseokoek, zurrenik «bestelako bikoteak» izango da. ○

Gariaren kontzertua Sopelan

Bakarkako zazpigarren lana esku artean, **hilaren 18an** eskainiko du zuzeneko



Ez da amaiera diskoko kantuakaz gozatzeko aukera egongo da

Pasa den martxoan plazaratu zuen musikari legazpiarrak *Ez da amaiera* diskoa, bakarkako ibilaldian zazpigarrena. Inaki Garitaonaindiak, Garik, aurkezpenean azaldu zuenez, *16 lore* aurreko lanagaz “ziklo bat itxi” zuen eta oraingoa garikideagoa edo “kontenporaneoagoa” da. Kongora egindako bidaia ideiak mamitu ostean, estudioan osatutako lana da *Ez da amaiera*; bateriaren doinuak perkusioek ordezkatu dute, eta gitarren doinu sendo zein bigunen nahasketa orekan... Beste hainbaten artean, Jon Maia, Fermin Etxegoien edo Jon Benitoren berbak dira hain-

bat kanturen hezurdura. Diskoa osatzen duten 11 kanten artean, ezin aipatu barik utzi “No Space No Time”; besteak beste, horren bideoklipean itsasadarreko eta Getxoko urbazterrak antzeman daitezke-eta. Horren albotik, aipagarria da diskoaren sorkuntzan eta orain arteko hainbat emanalditan Garik lagun izan duela Miguel Moyano, gure ingurunean musikarekiko hamaika loturengatik oso ezaguna den gitarra jolea.

Hori dana eta gehiago ezagutzeko, entzuteko eta gozatzeko aukera egongo da urriaren 18an (21:30) Kurtzio kultur etxean; sarrerak 6 euro balio du. ○

diskoa > Ruper Ordorika

Egunotan kaleratu du musikari oñatiarrak hogeita batgarren diskoa: *Azukre Koxkorak*. Fermin Muguruzaren eta Josu Landaren berbak zituen eta Toots & The Maytals taldearen “Chatty Chatty” abestiaren donuetatik hurbil zegoen musikagaz, Kortatuk egindako “Sarri, Sarri” kantaren Ruperren bertsioa izan da diskoaren aurrerapen singlea, pasa den ekainean ezagutzera emondakoa. Izan ere, “euskal musikan maila gorenean dabilen kantariaren tributo-albuma” da disko barri hau, banaketaz arduratuko den Elkar etxearen esanetan. Tributo-albuma, hainbat kanturen bertsioez osaturiko lana beraz, Azkarate estudioan grabatu zuen Ruperrek Mugalariak taldeko kideakaz batera. Aurrerantzean, besteak beste, diskoko kantuak zuzenean entzuteko aukera egongo da Bilboko Kafe Antzokian abenduaren 14an (22:00; 12 euro).

ikastaroa > Muguruza maisu

Fermin Muguruzak eskainiko duen “Dokumental Musikalak: Musika Eta Dokumentala Bidegurutzean” ikastaroa iragarri du SGAE-Autore fundazioak. Azaroaren 18tik 21era izango da, Campos Eliseos antzokian (Bilbo). Urriaren 31 arte 50 eurokoa da prezioa, aurrerantzean 60 eurokoa; izan ere, izena emoteko epea azaroaren 14an amaituko da. Lau orduko (16:00-20:00) lau saio eskainiko ditu Muguruzak, euskaraz (taldea sortuko biltz gaztelaraz ere eskainiko luketela diote antolatzaileek). Ikasgaien eta gainontzekoen informazio gehiago:

Info+: www.fundacionautor.org
944 438 666

diskoak

Bidea dugu helmuga
Larregi
Autoekoizpena



Arratia bailarako boskotearen estraineko diskoan rock, punk eta hardcore melodikoaren albotik metalak ere hartu du bere lekua. Hamabi abestiz osatzen den lanean Martxoak 31 taldearen “Ene lagun galduak” kanturen bertsioa eskaintzen dute arratiarrek; hori bai, azkartasuna erantsi diote euren moldaketari.

Ur abisalen espedizioa
The Icer Company
Autoekoizpena



Iker Zia abeslari (Arima Sutan) eta musikariaren hasierako egitasmoa gorpuztu dute beragaz batera Kerobia, Arima Sutan eta Soñadores Natos-eko hainbat musikaririk. Horren emaitza da Iruñerriko taldeak osatu duen hamabi kantuko disko hau: barruraino, hondaraino begirako bidaia, pop anglosaxoiaren doinuak lagun dituen...

Esnatu dira
Lou Topet
Autoekoizpena



Oier Aranzabal musikariaren ezizena da Lou Topet, eta taldera batu ostean eta hori ezagutzera emateko beste aukeraren bat baztertu eta gero, Aranzabal, Oihan Larrañaga, Unai Martinezek eta Ander Zulaikak osatzen duen taldeak ere hartu du ezizena izentzat. Sei kantuz osatzen da indie eta folk amerikarreko doinuak nagusi dituen taldearen lehenengo diskoa.

uk zure publizitatea hemen!

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

Garaizar barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- lokalak eta etxebizitzak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 -6 • regaraizar@euskalnet.net
www.garaizar.biz
Ilieta kalea 1 • ALGORTA

OSABIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behean eskuma
ALGORTA
94 430 76 96

Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

Bertsoak ipini eta lehiatu

Zabalik **“Nire gorputza, nire erabakia”** lehiaketako izen-emotea, **azaro erdira arte**

Beldur barik lehiaketa orokorraren osagai da, Bizkaira begira antolatu duten *Nire gorputza nire erabakia* bertso-paper-lehiaketa. Medicusmundi Bizkaia elkarteak da antolatzaile nagusia eta horretarako Bizkaiko Bertsozale Elkartearen, Pikara Magazine-en eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan du. Antolatzaileen esanetan, lehiaketaren helburua hurrengoa da: *“emakumeak gorputzaren eta sexualitatearen inguruan askatasunez erabakitzeke eskubidea aldarrikatu nahi dugu, hemen zein Guatemalan”*.

Lehiaketa adinaren arabera atal bitan banatuko da: gazteen maila (17 urte arte) eta helduen maila (18 urtetik gora). Gazteen mailan parte hartuko dutenek gitxienez bertso bi eta gehienez lau bidali

«Bizkaian jaio edo bizi direnei, zein lan egin edo ikasten dutenei begirakoa»

beharko dituzte, eta helduen mailakoek gitxienez 3 eta gehienez 8; gainera, bakar-ka edo taldean parte har daiteke. Horren albotik, Bizkai mailakoa denez, parte-hartzaileak *“Bizkaian jaio edo bizi direnak, edo lan egin zein ikasten dutenak”* izan beharko dute. Bertsoak osatzean, Medicusmundi Bizkaia-tik gogoratu dutenez,



Beldur barik ekimenaren baitako lehiaketa da

“hizkuntza sexista erabili edo genero-parekidetasuna errespetatzen ez duen bertsoirik ez da aintzat hartuko”. Halaber, sariei dagokienez, batetik, helduen mailako lan irabazleak 500 euro jasoko ditu, eta bigarren lotzen denak 200 euro; bestetik, gazteen mailako irabazlearentzat 300 euroko saria emongo dute, eta bigarrenarentzat 100 eurokoa. Azkenik, lanak posta elektronikoz (educa.bizkaia@medicusmundi.es) ala posta arruntez (Begoñako Andra Mari kalea 20. zenb., behe; 48006 Bilbo) bidal daitezke, hori bai, horretarako azken eguna azaroaren 15a izango da. ○

Info+: www.medicusmundibizkaia.org


liburuak



Euli-giro

Uxue Alberdi
Susa

Elgoibarko bertsolari, artikulugile, itzultzaile eta idazleak orain dela egun batzuk aurkeztu du *Euli-giro* ipuin-liburua. Bederatzi narrazioz osatu du lana, eta aurrerapen modura, horietako bat, “Opariak” ipuina, sarean irakurtzeko aukera eskaini dute.



Arma, tiro, bammm!

Joan Mari Irigoien
Elkar

Armagintza, arma-trafikoa, gerrak, eta horiek lotuko dituzten familia bi: bata, Gipuzkoa eta Bizkai arteko alegiazko Bereibar herrikoa, bestea Ekialde Hurbileko Balad al Xams balizko herrialdekoa. “Mendebalde-Ekialde arteko harremanen inguruko fabula” sortu du Altzako idazleak.

[kirola]

Kirolean ere euskaraz

Sopelako Udalaren eta hainbat elkarteren talde-lanaren emaitza da



Info+: www.sopelana.net

Sopelako Udalak “Kirolean ere euskaraz” kanpaina martxan ipini du kirol alorrean euskarari bultzada emoteko. Kanpaina honen arabera, udal kiroldegiko areto-jardueren %50 euskaraz eskainiko dira eta futbol-taldeen entrenamenduetan euskararen erabilera bultzatuko da.

Ekimena Sopelako Udala, Itzarri Consulting, Aitxu! Euskara-taldea eta Serviocioren elkarlanaren emaitza da. Sopelako Udaleko Euskara Zinegotzia Betitxe Sai-tuak adierazi du euskararen *“erabilera normalizatzeke apustu sendoa”* egin dutela eta *“kirol esparruan orain arte errealitate izan diren abulguneak gainditzeko asmoz”* hainbat ekimen sustatuko dituztela.

Udalerriko futbol taldeen entrenamenduetan euskara erabiltzeko proiektua ere martxan ipiniko dute, Koikili Lertxundi futbolariagaz eta Itzarri Consulting-eko kideakaz batera. Egitasmoa aurrera eramateko, Ugeraga, Ander Deuna Ikastola eta Zipiriñe eskolaren futbol prestaketak euskaraz egingo dituzte, entrenamenduen ka-

litatea alde batera utzi barik, noski.

Entrenatzaileek eta futbolariak, Koikili Lertxundiren saio teoriko eta praktikoak jasoko dituzte, kirol arloko terminologia zehatza ikasi eta entrenamenduak aurrera eramateko hainbat baliabide ikasteko aukera aparta eskainiz.

«Kiroldegiko erabiltzaileen %80 euskaraz eskolak jasotzeko nahia agertu zuen»

Euskararen erabilera kiroldegian bultzatzeko, udal kiroldegia hainbat areto-jarduerara euskaraz eskainiko ditu.

Martxoan, Aitxu! Euskara Taldeak “Sopelako kiroldegian ere euskaraz” kanpaina abiatu zuen, Udalaren eta Serviocio enpresaren lankidetzagaz. Apirilean kiroldegiko erabiltzaileen artean egindako inkestan %80 euskaraz eskolak jasotzeko nahia agertu zuen. Emaitzak kontuan hartuz, langileei euskalduntzeko erraztasunak emango zaizkie eta adingabeen ikastaro guztiak euskaraz eskainiko dira. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol moda



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 • ALGORTA

Izaro Gonzalez Ieregi > Arte Ederretan lizentziaduna

“Espero baino antzekotasun gehiago dago belaunaldi bien bizimoduen artean”

Belaunaldien arteko kultur transmisioa ikertu du Algortako Izaro Gonzalez Ieregi 81 amama dokumentalean, Oteizaren Quousque tandem lanean oinarrituz. Haren arabera, amamen bitartez transmititzen dira baloreak eta Gonzalezek 13 euskal amama eta lau biloba elkarrizketatu ditu: urrian erakutsiko du lana, Donostian eta Algortan, besteak beste.



Aurkezpenak: Donostian urriaren 17an eta Algortako Abian elkartearen hilaren 24an

—Oteizaren lanetik abiatu zara dokumental hau egiteko, zergatik?

—*Quousque tandem* liburua idatzi zuen 1963an eta bertan esaten du cromlech neolitikoaren garaitik ordura arte Euskal Herrian 80 giza-belaunaldi egon direla, eta belaunaldi bakoitzean amamek izan dutela oroimen batasun tradizionalaren papera. Beraz, nik kontuan hartu dut 81. amama, belaunaldi hori da-eta gure amarena. Gainera, gure arteko diferentzia handiagoa da: euretako askok bizi izan dute bizitza tradizionala, baserrian, baina guk ez. Dokumentalean ikertu dut transmisio hori emon den, belaunaldien artean antzekotasunik dagoen edo ez... Euskal iruditegiari buruz hitz egiten da: irudi bukolikoa daukagu, edo gatatzaren imajina; horretaz gainera gauza gehiago dagoela erakusten da. Ikusten da ere baserri munda askotan ez dela horren bukolikoa, gogorra dela eta emakumeek bertan izan duten funtzioa aipatzen da. Hainbat gai ere aipatzen da: euskara, auzolana, betebeharrak, hezkuntza, e.a. Kantauri isurialdeko 13 amama eta lau biloba elkarrizketatu dit. Dokumentala ez da ikusteko erraza, amama horien papera askotan ez delako erraza izan. Esatea ere berez ez dela ondare-bilketa, ez da-eta lan informatiboa: dis-

kurtso propioa osatzen du dokumentalak, ez dago egia bakarra, esperientziak askotan kontrajartzen dira eta ikusleen kritikotasunean ere eragin nahi nuen.

—Aipatu antzekotasunik topatu duzun belaunaldien artean, izan ere, protagonistak ez dira senideak, ezta?

—Espero baino antzekotasun gehiago su-

hori nabaritzen da dokumental osoan.

—Hori da ondorio nagusia?

—Lan honek ondorio propioak dituela: ikusleak berak atera ditzakeela bere ondorio, sentimendu eta iritziak. Nire helburua gaiari buruz ikertzea zen-eta. Gainera, auzolanean egin dut, eskura neuzkan tresnekin eta lagunaren laguntzarekin. Taldean

“Bide honetan jarraitu nahi nuke, dokumentalak tresna oso indartsuak dira-eta gauzak kontatzeko”

matu dut bi belaunaldien bizimoduen artean, nahiz eta protagonistak toki berekoak izan ez eta elkar ezagutu ez, hainbat tokitakoak direlako: Sopela, Algorta, Bilbo, Intxaurrondo, Azkoitia, Leitza, Makea, Luhuso, e.a. Azken finean, horixe da ideia: transmisioa belaunaldien artekoa da, orokorra, kolektiboa. Eta transmisio

egin dugu eta hori inportantea da, gainera dokumentalagaz ere bat dator.

—Bideoklipak egin dituzu, orain dokumentala, bide horretatik segituko duzu?

—Kristoren lana da, baina gustuko nuke honetan jarraitzea, dokumentalak tresna indartsuak dira-eta gauzak kontatzeko. ○

Info+: www.81amama.com

Aritza Bergara

Atal honetan agertzen diren testuak eta ilustrazioak “Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik” proiektutik ateratakoak dira. Adarmendi eta Orritz euskal kultur elkarteek bultzatutakoak. Materialak ikusteko edo informazio gehiago lortzeko www.euskalherrikomitologia.com webgunera jo.



Mikolasak. Ilustrazioa: Daniel Castello

Mikolasen olerkiak

Urteak eman nituen
ibaia gurutzatzeko
sei leguak baino gehiago
ibili behar nituela.

Hemendik aurrera
hori bukatu da.

Andregoto zaharrari
galdetu nion,
eta berak esan zidan
Mikolasekin
akordio batera
ailegatu behar nintzela.

Amildegia honetan
gaur gauetz
Mikolasek egingo dute
behar dudana zuba.

Nire arima
eskatu didate
lanaren ordez.
Baina, zer da arima
kristauen sinesmenetan
sinesten ez dugunontzat?

[badaukazu non aukeratu]

[pintxotan]

Taberna eta jatetxe asko ditugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



portu zaharra bar
 Portu Zaharra kalea 35
 48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
 Tf. 94 460 20 33
 portuzaharra@portuzaharra.com
 www.portuzaharra.com



SOLAETXE
 Eguneko menua **Jatetxea** Karta
 Asteburuko menua Oilasko erreteria
 Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



La Triangu.
 Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



berezi
 Hanburgesak Ogitartekoak
 Sanwichak Plater konbinatuak
 SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
 ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



BODEGUILLA BUTRON
 Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
 94 430 01 74
 www.bodeguillabutron.com



txakoli mota gane txakolina
 Leioa-Unbe errepeidea 34 (Akarlana Parkea) Gohierri-Erandio
 Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



UNAI TABERNA
 C/ Alangobarri n°3 C.P. 48991 Getxo Telf. 94 466 16 61



JAN-TOKI ORMAZTEBAL
 Eguneko menua
 Menu bereziak
 Karta
 Erreserbak:
 94 476 2389
 607 21 89 61



LAUREN
 GOSARIAK
 PINTXOAK
 KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
 SOPELA
 Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)



GURE ETXEA taberna
 HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
 Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

Boteko txipiroiak

bertokoak, banan-banan arrantzatuta



Saltsek nahasketa ederra sortzen dute

Oraingoan Romoko Gure Etxea tabernara hurbildu gara, bertan pintxo ederra prestatu digute-eta. Bertako barrara heldu eta Getxoko labela duten txipiroiak topatu ditugu. Pintxo honen berezitasun handiena, tabernariak esan legez, horren jatorria da; izan ere, Abran bertan, banan-banan hartutako txipiroiak dira. Horrek, banan-banan hartu izanak, hain zuzen, sekulako eragina dauka zaporean, txipiroiek zapore biziagoa baitaukate. Txipiroiak tabernara ia bizirik heldu ostean, plantan egiten dituzte, ondoren, olio eta gatza apur bat botatzen diete.

Ostean, saltsa: tipula saltsa eta saltsa baltza. Tipula saltsa egiteko, lehenengo eta behin, tipula zatitu behar dugu, gero, zartaginean gorritu. Tipula gorritu denean,

puregailutik pasako dugu, saltsa itxura lortzeko. Saltsa baltza egiteko, osteria, tipula gorria, porrua, eta ogi zati bat zatitu eta zartaginean botako dugu olio apur batez. Ogia, besteak beste, saltsa loditzeko erabiliko dugu, behin osagai horiek zartaginean eginda puregailutik pasako ditugu, eta azkenik, saltsa horri tomatea eta txipiroi tinta naturala botako diogu baltz jar dadin. Hala, txipiroia plantan, saltsa bigaz aterako dugu. Gure Etxea tabernakoek esan legez, produktu guztiak bertokoak izaten ahalegintzen dira, horren adierazgarri, Abrako Txipiroia. Hala, urtero, ekainetik aurrera Gure Etxea tabernako eskaintzaren artean daukagu bertoko txipiroiak. ◯

Osagaiak: txipiroia, tipula, olio, gatza, porrua, ogia, tomate, tinta beltza

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA

KONTXI ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI edantokia

frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



MONTE JAIA 1
48995 Getxo (BIZKAIA)
croissanterie-getxo.blogspot.com 91 460 86 48



URDULIZ

Teléfono: 946 761 128



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Apiriluzeko z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

Torrene 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com
irati
OPARIAK MODA GAZTEA

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentso"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Liburariak
Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

uk zure publizitatea hemen!

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Beno-beno, ez kezatu hainbeste, ez da igaro denbora gehiegi porrotarik ona. Hartu arnas eta segi lanera gogoz, oraindino asko falta da eta hurrengo oporraldirako.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Eguraldi freskoak on egin dizu eta zu ere fresko-fresko zabilza, indartsu eta gogotsu. Emon izena gimnasioan eta laster ipiniko zara sasoiatsu, topera zabilza-eta: nor geldit zaitzake?

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Piper berdeen sasoi igaro da, baina ez nekazaritza-azokena. Aurreztu diru apur bat, laster dator-eta Gernikako azken astelehena azoka, eta egongo da zer erosi eta dastatu.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Datorren astean dentistarengana joango zara ohiko azterketa egitera, baina sorpresa handia hartuko duzu: enpate mordoa egin beharko dizute. Izan ere, ahoa zaindu beharra dago...

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Gurasoak haserretuko zara eta eztabaida gogorra izango duzue, baina lasai egon. Izan ere, zure argudio onak azkenean konbentzituko dituzu. Aupa zu!

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Aukerarik ez duzu galtzen, ezta? Beti dago parranda non eta nogaz egin: ikastolen jaialdiak direla, Gernikako azken astelehena dela... Segi gozaten, denbora azkar doa-eta aurrera!

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Onak tomateak, ezta? Berandu irten dira, baina gozo-gozoak! Oraindino jan ahalko dituzu bakan batzuk udagoien honetan, baina neguko ortuariak landatzen hasi beharko zenuke.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Hainbeste urteren ostean azkenean tokatu zaizu Babes Ofizialeko Exebizitza, zorionak! Orain hasiko dira buruhausteak: noiz eraikiko dute? Eta, batez ere, zelan ordaindu?

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Kalean zoazela atso batek hitz misterioitsuak esan eta etxera joango zara korrika, begizkoa bota dizulakoan. Horrela bada ez galdu denborarik etxean, edonon harrapatuko zaitu-eta...

META



(Irailak 17 urriak 16)
Gozogile aparta ei zara eta doaia erakusteko aukera danak baliatzen dituzu. Horra hor aukerarik onena: zure urtebetetze! Pastel gozosa prestatu, txokolatetzkoa, noski, eta oso ondo pasa!

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Denbora osoan buruari bueltaka, askotan jan barik eta lotsatuta... Zu enamoratuta zaud! Harengana gerturatu eta esaiozu, gixienez barrua hustu eta lasaituko zara.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Irakasle-gairik finena ei zara, horrela diote behintzat zure ikasleek gurusoek: danak liluratuta dauzkazu. Segi horren langile, egungoko nota ona ipiniko dizute-eta praktiken ebaluazioan.

Kopiak SALGAI UK aldizkariaren bulegoan

Urbe Kostako aldizkariaren ekoizpena **uk**

Getxo **Getxo** EUSKARA BIZI

Getxoko Euskara Saria **Argia Ereiten**

Getxon, euskararen eta euskaldunon metafora dugu artea. Sasoi batean euskara gure herrian inguru naturalean bizi zen, baina gaur sarritan arrotz sentitzen da; artadi zarenak arbola hakarti edo apurak baino ez dira gaur egun, adi egonez gero baimo ikusten ez direnak.

Argia Ereiten Euskara sariaren asmoa horixe da, argia egitea Getxon euskararen "arteak" aurkitzeko. Lagundu argia egiten, lagundu argia ereiten; proposatu 2013ko Getxoko Euskara Sariarako zure izena(k).

Egin zure proposamena URRIAREN 28a baino lehen ondorengo edozein helbideretan:

email: euskara@getxo.net
idatziz: Getxoko Udala, Euskara Zerbitzua
foru kalea 1 48992 Getxo

Zelan erein, jasan bildu



gaztetxoak > denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Gogoan har egizu: 1etik 9ra arteko zenbaki guztiek ageri behar dute errenkada, zutabe eta 3x3 lauki danetan.

1	3	2	4		6			9
	9		1	3		4		
					2			6
7						2	5	3
5	6		3	2	8	1		
9				1	5			
		5	9		4			8
			2	8				3
	4			7				

		8	7		6	4		
3		4		9				
7		1	6			3	2	
							9	
2	8	9			5	4		
				1	8			2
			7			2	3	
8		2						1
6	4			3	1			8

gaztetxoak > bilatu eta irabazi

Zelan esaten diote bizkaitarrek 10. hilari?

- Gabonila
- Urria
- Agorrila

La Gusana liburudenda SARIA
 Tellagorri plaza, Algorta
 Tf. 94 491 14 12 **lagusana**

> Aurrekoaren erantzuna: Zubi handiak
 > Irabazlea: **Ez dago irabazlerik***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

ez horren gaztetxoak > non da?



Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?

Oinutsik SARIA
 kontsulta podologikoa
 Zubigane 4, Sopelana
 Tf. 94 404 74 20
 oinutsik@euskalnet.net

> Aurrekoaren erantzuna: Erandion
 > Irabazlea: **Begoña Etxebarria***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



NAGUSIEN ETXEAN BAZKARIA ETA JAIA (BARRIKAN), 1964

Barrikako nagusien etxeari laguntzeko dirua biltzeko uso-tiro jardunaldia egiten zen abuztuan Plentzian, Txipio ibarrean. Ehiza eta Arrantza elkarteak antolatzen zuen eta kanpotar asko etortzen zen ekitaldian parte hartzeraz. Hainbat emakumek laguntzen zuten bazkaria zerbitzatzeko. Ekitaldia amaitutakoan, nagusien etxera hurbiltzen ziren elkarteko batzordeko kideak eta emakumeak, batetik dirua nagusiei erosteko, bestetik bazkaria zerbitzatu eta eurentzako jai egiteko. Hainbat urtean egin zen uso-tiro ekitaldia eta argazki hau bigarrenaren ostean edo ateratakoa da. ○

Zutunik: Anton Intxaurtieta, Anton Ageo, Javier Basagoiti, Iñaki Lauzirika, Juan Allende (semea), ? (moja), Angel Bidaurreta, Angel Bidaurreta (semea), Jose Vaquero (alkatea), ?, ?, Agustin Mendizabal, Jose Manu Laraudogoitia eta Evelio Ubillos.
Eserita: Florentina Goñi (moja), Mercedes de Gangoiti, Maria Victoria Escartin (Marivi), ?, Lucia Etxebarria (Lutxi), Rosa Blanca Bilbao, Adita Parra-Vaquero, ?, Mercedes Atxa (Txelo), Mari Carmen de Gangoiti, Pili Parra-Vaquero eta Pepa Aldamiz-Etxebarria.

XXXI. Getxoko Antzerki Jardunaldiak

Jornadas de Teatro de Getxo 2013 urria octubre

Algortako San Nikolas plaza
Plaza San Nicolás de Algorta

Andrés Isasi Musika Eskola
Escuela de Música Andrés Isasi

12 larunbata / sábado	13:00. HANKAPALU Kalika teatro (euskaraz)	20:00. TERAPIAS Vaivén Producciones (castellano)
13 igandea / domingo	13:00. TXARLESTRUP Zirika Zirkus (euskaraz)	18:00. BUELTAKA Behibi's (euskaraz)
19 larunbata / sábado	13:00. VIVE SOÑANDO Trapu Zaharra (castellano)	20:00. EMAZTEGAIAREN SEMEA Ados Teatroa (euskaraz)
20 igandea / domingo	13:00. TXANGO Potxin eta Patxin (euskaraz)	18:00. KATILLUKADAK Kontakatu (euskaraz)



+info
94 491 40 80
kulturetxea@getxo.net
www.getxo.net

